

*Hamaika abere-ipuin*



# HAMAICA ABERE-IPUIN

*Bizkaiko herri-alegiak*



Labayru Ikastegia  
Ikastolen Elkartea  
1997  
Bilbao

# LANTALDEA

TESTUEN AUKERA ETA TRANSKRIBATZEA

Adolfo Arejita  
Asier Astigarraga

ARIKETAK ETA GAI PEDAGOGIKOAK

Nerea Arregi  
Loli Hernandez

ARTXIBO-LANA  
Jaione Ibarra

LAGUNTZAILEA  
Juanjo Respaldiza

© Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Ikastolen Elkartea.

© *Edizio honena*: Bizkaiko Ikastolen Elkartea eta Labayru Ikastegia.

*Diseinu editoriala*: Ikeder, S. L.

*Fotokonposizioa eta fotomekanika*: Ikur, S. A.

*Silutegia*: A. G. Rontegui, S. A. L.

*L. G.*: BI-2420-96

*ISBN*: 84-86833-92-2.

# AURKIBIDEA

**7**

Aurkezpena

**9**

Sarrera

**13**

Hamaika abere ipuin

*1. Mirua eta azeria*

*2. Azeria eta Otsoa*

*3. Azeriaren hiru egiak*

*4. Txolin Sierra*

*5. Abereen batzarra*

*6. Astoa, Txakurra, Katua eta Oilarra*

*7. Gizona eta Otsoa*

*8. Azeria eta Amiamua*

*9. Astoa eta Txarria*

*10. Zazpi Ahunzkuma*

*11. Ondo eginaren pagua*

**71**

Ariketa orokorrak

**74**

Erantzunak



## AURKEZPENEA

Gure kultur ondarea ezagutzea, baloratzea eta horretaz gogatzeta da hemen aurkezten dizugun liburuaren xede nagusia. Zorionez, hezkuntz sistemaren helburuen artean jasota dago berau, eta helburu hau lortzeko bidean lan egiteko arduradugu euskal kulturaren inguruan ari garenok, bakoitzaren ahaleginari gainontzekoena batuz, harik eta euskal kurrikuluma osatu arte.

Xede nagusi hau, eskuartearen dugun egitasmo honetan, ahozko tradizioaren alorrean zehazten da. Jakina da Euskal Herrian ahozko tradizioa aberatsa dena idatzizkoarekin konparatuta. Baita ere, tradizio hau jasotzen —ipuin, kontakizun, kanta, atsoitz, sineskera, errito...— lan handiak egin dituztela batzuk han-hor-hemenka.

Beste behin ere liburu hau Labayru Ikastegia eta Ikastolen Elkartek elkarlanean burututako emaitza dugu. Labayru Ikastegiaren ardura ipuin bilduma osatzea izan da, bere Ahozko Literaturaren Arkibuan arakatu ostean. Ikastolen Elkartearen ardura, ostera, ipuinen erabilera didaktikoa presatzea izan da, horretarako joko, ariketa eta lan proposamen egokiak eskeiniz.

Hemen aurkeztu dizkizuegun ipuinak, aho-belarriz jasotakoak dira, ahozko literaturaren lekukoak dira. Ahozko literatura hau suspertzea, maitatzea eta norberak erabiltzea da lan honen beste lehia nagusia. Gure ikasle edo seme-alabek Euskal Herriko tradiziozko herri-literatura ezagutzea nahi dugu, kultura-ondare honekiko begirune eta jakinmina sortu nahi dugu eurengan. Gaur egungo neska-mutilak hurrengo belaunaldiei ipuin eta kontakizun hauek ezagutzera ematea lortzen badugu, helburua lorturik izango dugu.

Ipuin-liburu honetako ipuinak fabula edo alegiak dira, abere-ipuinak. Ez dago esan beharrik zein erakargarriak izaten diren umeentzat animalien ipuinak. Hemen aurkezten dizkizuegunak ez dira idazle batek materiala jaso, ondo eratu, eta ondoren idatzitakoak. Aitzitik, herrian jaso dira, kontalari batek edo bestek kontatuta. Guk idazkera apur bat zaindu baino ez dugu egin. Honen ondorioz, beste ipuin batzurekiko duten desberdintasuna nabaritu duzue. Ipuina irakurri baino, “entzun” egingo duzue, irakurtzen bazaude ere.

Hau dela eta, zehaztasun bat egin nahiko genuke. Lehen Hezkuntzako ikasleekin, hizkuntza erregistro desberdinak daudela jo eta ke lantzen den gaia da. Erregistro bakoitzak komunikazio funtzio desberdina betetzen duela.

Ahozko adierazpenaren ezaugarriak —gehienak behintzat— egokitu egin behar dira idatzizko bihurtzen direnean: Batpateko produkzioa denean, errepikapena, esamolde antzekoak, hiztegi urriagoa... ontzat ematen dira, naturaltasunak, bapatekotasunak eta espresioaren indarrak lehentasuna dute-larik. Hitz egiterakoan, ahotsaren modulazioak, ebakerek, abiadurak, doinuak, keinuek... beste hizkuntza atal bat osatzen dute, idatziz azaltzen ez dena.

Ipuin bilduma hau beraz, nahiz eta idatziz aurkeztu hemen, ahozko adierazpenaren fruitu da, batpateko produkzioa da, eta esparru honen luze-zabalen barruan jarri behar dugu.

*Labayru Ikastegia  
Ikastolen Elkartea*





# SARRERA

## 1. Ipuin sorta honen ezaugarriak

Liburuaren benetako sarrera-atarikoari hasiera eman baino lehenago, ipuin-sorta honen testuen euren aurkezpena egitea da hemengo lana.

Labayru Ikastegiak Bizkaiko eskualde desberdinetan jaso ditu kontakizunak aspaldiko urteetan. Jasotako material horretatik, bilduma honi zelan edo halako bateratasuna emateko, abere-ipuinen sorta berezi bat atondu dugu.

Lehenengo ipuin sorta honen hari nagusia animaliak dira, beraz. Hemen agertzen diren hamaika ipuinotan abereak dira protagonista nagusiak eta, beherago ikusiko dugunez, tradizio zahar eta luzeko eredu literario bati hurretik jarraitzen diote denek.

### 1.1. Jatorria

Testuok Labayru Ikastegiak urteotan osatu duen Ahozko Literaturaren Arkibutik jasoak dira. Gehienak orain hamabost bat urte grabaturikoak eta Bizkaiko lurretan eskualderik eskualde lanean jardun zuten lantaldeen emaitza dira. Atal honen bibliografiaren ostean jasoko dugu ipuin bakoitzaren esatariaren eta biltzailearen berri zehatza.

Jatorriari begira, lekukoak Arratia, Busturialde-Gernikalde, Lea-Artibaikoak, Durangalde eta Mungialdekoak dira. Bizkaieraren zati handi bat hartzen du barruan hemengo testu andana honek (baina ez dena).

### 1.2. Animalien ipuinak: alegiak

Aho-belarriz jasotako ipuinak diren arren (ahozko literaturaren edo herri-literaturaren lekukoak esango genuke), heldur barik esan liteke hemengo kontakizunok literatura idatzia-riaren beste eredu orokor eta landu baten ordezkari direla: alegiarena, hain zuzen ere.

Aspaldion gure artean, eta mendebaldeko literatura osoan, genero hau gainbehera jausi bada ere, literatura-moeta honek loraldi bi izan zituen: Grezia eta Erromako literatura klasikoa batetik, eta XVII-XVIII. mendeetako idazleek —bai gure herrian bai alboerrietan— kaleratutako produkzioa bestetik.

Sarri jazoten den moduan, literatura-moeta landuak herri-tartu egiten dira, aho-literaturako generoak eredu literarioetara ekarri egiten diren moduan. Maila bataren eta bestearen artean agertu izan zaizkigu bada, hona dakartzagun ipuinok. Gure aitita-amamen ahoetatik entzun ditugu guk K. a. III. mendean entzun zitezkeen moduan abereen alegi-kontutxoak eta berbak.

Gure abere-ipuinan, bada, alegigintzaren ezaugarriak behinena ikusiko ditugu:

—Pertsonaiak beti berdintsuak dabilta ipuinik ipuin, eta prototipoak dira, hau da, aldez aurretik jarritako eredu bat betetzen dutela. Azeria zuhurra eta zolia da, otsoa zakarra eta leloa, astoa otzana eta langilea, eta abar.

—Kontakizunaren xedea irakatsi bat ematea da, bizitzako

egoera zehatz baten aurrean ze jokabide hartu behar den azaltzeko jarraibide bat ematea.

—Kontakizunaren azkenean, sarri, honen irakatsia laburbiltzen duen esaldia edo adagioa ematen da.

### 1. 3. Aipamen etnografikoak

Eredu literarioari begira azaldu ditugu gutxi gorabeherako ezaugarri batzuk. Dena dela, ez dugu ahaztu behar hemengo ipuinok herri-hiztunengandik jaso ditugula. Kontakizunok, bada, herri-kulturako eta usadioetako hainbat ezaugarri jantzirik agertuko zaizkigu. Hiztegiaren aukeran, bizimoduen deskribapenetan eta egunoroko ekintzen berri ematean ipuinotan galdu aginean dagoen giro baten berri emango zaigu. Irakurleak xehetasun txikikiok kontuan hartu beharko ditu testuok euron luze-zabalean ondo ulertzeko.

Ez da hau azalpen etnografikoak zehatz emateko tokirik aproposena. Hala ere ipuin batek alderdi hau lantzeko biderik emango balu ohar batzuk eta azalpen batzuk emango ditugu langai bezala erabil daitezten.

## 2. Liburua norentzako?

Ipuin bilduma honek hiru erabilera desberdin ditu, ikasle-en / haurren adinaren arabera.

A. Guraso nahiz irakasleok haurrei kontatzeko erabil ditzakegu ipuin hauek. Ipuina irakurri eta, istorioaz jabetu ondoren, geure erara kontatu. Sarri gertatzen da gurasoak euskal herri-ipuina kontatu nahi umeari eta bakarren bat baino ez ezagutzea. Ikuspegi honetatik, liburu hau 2-8 *urte* bitarteko haurrei zuzendua da, hots, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrei. Edo, hobeto esanda, euren guraso eta irakasleci.

B. Ikaslea / haurra bera ere izan daiteke ipuinak irakurri eta kontatzen dituen. Irakasle edo gurasoek lagundu behar-

ko diote euskarazko zenbait hitz eta esamolderen esanahia argitzen. Ondoren, ulermen-ariketak (lan proposamenetako 2. atala) egingo ditu ahoz eta ahozko adierazpena era orokorrean landu (ipaina kontatu, jarraitu...). Ikuspegi honetatik, ipuin hauek 8-10 *urte* bitarteko haurrentzat izango lirateke egokiak, hau da, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzako.

C. Ikaslea irakurle eta kontatzaile izateaz gain, 10-12 *urteko* neska-mutilak guk aurkezten ditugun proposamen guztiak aurrera eramateko gai dira, materiala bere sakontasun guztian aztertzeko gai dira. Adin honetan, ipuinak irakurri eta ezagutu ezezik, honako azterketa hauek ere egin ditzakete: Ipuinaren egitura aztertu, ipuinen arteko konparaketak egin, pertsonaia bakoitzak ipuin desberdinetan duen jokaera aztertu, egitura sintaktiko berriez gozatu, zenbait jokabideren ego-kitasunaz / desegokitasuna epaitu, euskalkietarako hurbilketa egin, ahozko adierazpena sistematikoago landu...

## 3. Lan proposamenak

Ahozko adierazpenaren arloan gaudela kontuan izanda, hona hemen gure gomendio nagusia lan proposamenak egiterakoan: ahalik eta gehienak, *ahoz* egin!

Material guzti honek ahozko adierazpena lantzeko balio nahi du. Bi hitz sinonimoak direla jakitea baino nahiago dugu, ikasleak sinonimo bi horiek bere ohiko ahozko produkzioan erabiltzea eta, hori lortzeko beharrezkoa den automatizazioa lantzen ahalegintzea material honen bitartez.

Hiru atalotan banatu ditugu lan proposamenak:

### A. Euskara aberasten (kolore gorriz)

Atal honetan, testuan agertzen diren zenbait hitz eta esamolde aztertuko ditugu, gure ikasle / haurrentzat ezezagunak izango direnak, seguraski. Atal honen bitartez, hiztegia eta joskera aberastuko ditugu, batipat. Joskera azpimarratu nahi

dugu hemen. Izan ere, ipuin hauek ahozko produkzioak izaneran, esamolde ezezagun baina oso aberatsak aurkituko ditugu, idatzizko produkzioan normalean aurkitzen ez ditugunak, produkzio mota hau berez baita formalagoa. Esamolde hauek ikaslearen euskara aberatsago eta naturalago egiten lagunduko diotelakoan gaude. Atal hau, bere osotasunean, *10-12 urte* bitarteko haurrei zuzendua dago, nahiz eta ariketa solteak *8-10 urte* bitartekoekin ere egin daitezkeen. Haur txikiagoekin lan egiterakoan, atal hau irakasle edo gurasoari zuzentzen zaio, ez haurrari, jakina.

### *B. Ondo ulertu dut? (kolore beltzez)*

Hauxe dugu bigarren atala. Izenak dioenez, entzundakoaren edo irakurritakoaren —bata edo bestea adinaren arabera— ulermena lantzen da atal honetan. Jakina da ulermenik gabeko komunikazioak ez duela zentzurik ez ahozko ez idatzizko komunikazioan.

Ipuin hauetan garrantzi berezia du atal honek, ipuin hauek ez baitira haurrei kontatzeko eginak, edonori kontatzeko baino. Honen eraginez, zenbait ekintza argi adierazita egon beharrean, irakurle / entzuleak inferitu beharreko moduan adierazita daude. Bestalde, ikasleak hitz eta egitura berri ugari aurkituko ditu, ulermena zailagoa eginez.

Atal hau, era desberdinetan baina adin guztietan landu beharrekoa da.

Haur txikienekin, *2-8 urte* bitartekoekin, atal hau abiapuntutzat hartuta baina galderak era zabalean eginda, guraso edo irakasleak ikasleak zer ulertu duen jakin dezake, ondoren, ez ulertuak argitzeko.

*8-10 urte* bitarteko ikasle / haurrekin ordea, irakasle / gurasoak galderak bere hiru aukera posible eta guzti egin diezazkieke ikasleei. Helduak berak irakurriko ditu galderak baina diskriminazio maila handiagoa eskatuko diogu honela umeari, goian aipatutako eran eginda baino.

Azkenez, *10-12 urteko* neska-mutilek euren kabuz irakurri eta erantzun ditzakete galderok.

### *C. Ipuinarekin jolasten (kolore urdinez)*

Atal hau umearentzat jostagarria izatea nahi dugu. Ipuinaren irakurketa edota kontaketa amaituta, hemen hasten da ipuinarekin gozatzeko aukera eskeintzen duen proposamen sorta. Ikastetxean ezezik etxean ere landu daiteke atal hau, nahiz eta horretarako ariketa batzuk aldatu behar diren (taldeka barik aitaren edo amaren eta haurraren artean egitea, esaterako).

Irakurritakoaz hausnarketa egitea, antzekotasun / desberdintasunak bilatzea, pertsonaien jokabideei buruzko epaiak egitea, norberaren baloreak eraikitzen joatea, irakurketak bururatzeko dizkigun bizipenak adieraztea... era honetako jarduerak egiten badira, irakurketarako zaletasuna piztu eta zabaltzeko bidean egongo gara. Eta, bestalde, aukera ezin hobeak galduko dugu zenbait eduki eta balore lantzeko.

Atal hau, bere osotasunean, *10-12 urte* bitarteko neska-mutilentzat pentsatuta dago. Halere, bertan proposatzen diren zenbait ariketa egin daitezke *8-10 urte* bitarteko umeekin ere.

Bertan sartzen dira, besteak beste: ipuinaren egituraketa aztertzea, bere mezu edo ikasbidea zein den asmatzea, zenbait jokabideri buruzko hausnarketa eta eritzia ematea, ipuinari loturiko gaii buruz eritzia eman eta eztabaidatzea, atsitizak aztertzea, oroimen-ariketak, jolasak...

## **4. Azken oharra**

Testuaren jatorria ahoz jasotako kontakizuna da. Erizpide desberdinak egon litezke testuok transkribatzerakoan, jasotako testigantzaren eta azken testuaren arteko hurbiltasun edo urruntasun mailaren arabera.

Beste alde batetik, herri-hizkeran jasoriko ipuinen idazkera normalizatuz gero, sarri askotan aberastasuna eta adierazkortasuna galtzeko arriskua dator. Horrexegatik, bada, bitarteko bidea aukeratu dugu abere-ipuinoak agertzeko. Bidea hauxe izan da: testuen hizkera euskalkiko eredu eta ortografia literariora hurbiltzea, baina joskeran eta hiztegian ikuturik lar egin barik. Honetara, irakurleak aparteko ahalegina egin beharko du testuak irakurtzean gutxieneko zentzua eta irakurketaren haria ez eteteko. Irakurlearentzako lana nekezagoa izango bada ere, entzulearentzako testua esanguratsua izango da eta biziagoa.

Honaino gure partetik argitu beharrekoak. Behin hau egin da, gure lana amaitu da eta zeuek zarete orain gure lekukoa jaso behar duzuenak. Zeuek zarete lan honen balioa eguneroko lanean neurtuko duzuenak. Ea lagungarri suertatzen zaiuzen.

Nerea Arregi  
Loli Hernandez  
Asier Astigarraga

## Bibliografia orokorra

- ASKOREN ARTEAN. *Euskal Alegigintza*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1991 (“Gauontza” sorta-7).
- GONZÁLEZ DE ZÁRATE, Jesús María. *Corpus. Fabulistas vascos de los siglos XVIII y XIX*. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskalerriaren Adiskideen Elkarte-Instituto Municipal Ephialte. Vitoria-Gasteiz. 1995.

MOGEL, Jose Antonio. *Ipuinak*, X. Altzibarren ed., Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa-Eibarko Udala-Markina-Xemeingo Udala, Bilbao, 1995.

ZABALA, Juan Mateo. *Fábulas en dialecto vizcaino*, A. Zelaletaren ed., Euskal Editoreen Elkarte-Labayru Ikastegia, Zarautz, 1986 (“Klasikoak”-2).

ZARATE, Mikel. *Ipuin antzeko alegi mingotsak*, Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao, 1997 (5. argitaldia).

## Lekuko eta biltzaileen zerrenda

*Mirua eta Azeria*. Lekukoa: Soledad de Samaniego. Biltzailea: Markos Bilbao (1984).

*Azeria eta Otsoa*. Lekukoa: M<sup>a</sup> Juana Uriguen. Biltzailea: M<sup>a</sup> Asun Gabiola (1982).

*Azeriaren hiru egiak*. Lekukoa: Eustakia Bilbao. Biltzailea: Bego Zabaleta (1983).

*Txolin Sierra*. Lekukoa: M<sup>a</sup> Juana Uriguen. Biltzailea: M<sup>a</sup> Asun Gabiola (1982).

*Abereen batzarra*. Lekukoa: Anbrosio Azkarate. Biltzailea: Josune Etxeita (1984).

*Astoa, Txakurra, Katua eta Oilarra*. Lekukoa: Begoña Onaindia. Biltzaileak: Ibone Aizpiri eta Agustina Ibarluzea (1986).

*Gizona eta Otsoa*. Lekukoa: Fulgenzio Mardaras. Biltzailea: Iruñe Iturregi (1983).

*Azeria eta Amiamua*. Lekukoa: Anbrosio Azkarate. Biltzailea: Josune Etxeita (1985).

# 1.

## *Mirua eta Azeria*

Behin baten zan Mirua, eta Miruak euki eban zugatz baten bere habiea, eta euki ebazan bere kumatxoak han habian.

Eta negua zanean, eta eguraldi txarra heldu zanean, Azeri txarra gosez egoan, eta jatekorik topau ezinda.

Baina jakin eban legez zugatzean miru-kumak egozana, esan eutsan bere buruari:

—Ea hauxe engainetan dodan, hau miru-zaharrau!

Zugatzpean jarri zan eta buztanagaz zugatz-eperdia inguratuaz, ebateko planteia egin eutsan. Eta halantxe, ebateko kontua baleu legez, esan eutsan Miruari:

—Mirua, emoten ez badeustazu hor daukazun kuma bat, zugatza behera bota eta kuma guztiak jango deutsudaz. Halanda ze, bota arin hortik neuri kuma bat!

Eta Miruak erantzun eutsan:

—Ai! Eutsi bategaitik ba!

Besteak salbetan bazituan, ahaleginak egin gurean, ba, Mirua.

Eta halantxe, banan-banan, kuma guztiak jan eutsazan Miruari Azeri zaharrak.

Eta gero, miru-kumak amaitu ebazanean, han ibili zan osteko egunetan, ez non jan ez non jatekorik aurkitu ez ekiala, azeri zaharra.

Baten ia hilda topau eban Miruak azeri zaharriori, eta esan eutsan:

—Azeri! Nik badakit non dagoan jatekoa. Oilatoki eder bat dago hemen urrun ez dala.

—Ene lagun! Lagun handia haz hi eta, eroan nagik hara. Mesede handia litzatekek hori niretzat, ze osterantzean goseak hil behar najok.

—Bai, eroango zaitut; neure laguna zara eta eroango zaitut —esan eutsan Azeri zaharriori—. Jarri neure ganean, eroango zaitut eta!

Hartu eban Miruak Azeria; honek miruaren ganera igon eban, eta han joan zan. Miruak hartu eban abiadea, hegaz gorantza gorantza. Eta joan zan mendiarte batera, hatx bitarte batera, eta goigoian egozala, esan eutsan Miruak Azeriari:

—Azeri! Gogoratzen haz hareek nire kuma koitaduak lantzean bat zelan jan eustazan? Gogoratzen haz?

—Isilik egon hadi! Kontu zaharrak itxi eta aurrera, aurrera!

Miruak bira-biraka ziharduan bertan, hatx atzean egoan mendiartean, eta ostera be Miruak:

—Azeri! Gogoratzen haz hareek nire kuma koitaduak banan-banan zelan jan eustazan?

—Isilik egon hadi, hareek kontu zaharrak ahaztuta, eta aurrera, aurrera!

Erantzun eban barriro Azeriak:

—Aurrera, aurrera! Oilatoki hori topau behar joagu, goseak hil orduko!

Eta ostera be Miruak horixe:

—Gogoratzen haz hareek nire kuma koitaduak banan-banan zelan jan eustazan? Hareek danak oraintxe ordaindu beharko dozuz, zantarriori! Kuma guztiak jan zeustazan, baina orain danak ordainduko dozuz zeuk be!

Eragin eutsan lepoari eta hara non datorren azeri zaharra goitik behera.

—*¡Aparten peñas y pongan sábanas!*

Azeri zaharra alarauka goitik behera, hatxak ikusten ebazan behean eta:

—*¡Aparten peñas y pongan sábanas!*

Eta behean jo eban eta hatxak apurtu eben Azeri zaharriori.

1. Ipuin honetako protagonistak Azeria eta Mirua dira. Badakizu ze hegazti moeta den Mirua? Zelakoa da? Ez badakizu, jo hiztegiara eta beraren irudiren bat aurkitu.
2. Azter itzazu ipuinean agertzen diren berbak. Jakingo zenuke berba horiek, esanahia aldatu barik, beste era batera esaten?
- Lagun biren artean edo taldean egiteko: bata ezkerraldeko zutabeko berba bat eta eskumako guztiak esan behar ditu. Besteak, edo talde osoak, multzo horretatik lehenengo hitzaren sinonimoa zein den esan eta esaldi baten barruan erabili. Ondoren, gezi batez lotu zenitzake zutabe bietako hitzak. Hona hemen hitz multzoak:
- |                               |        |                              |
|-------------------------------|--------|------------------------------|
| —gura izan                    | edo... | —berriro ere Miruak          |
| —osteko egunetan              | edo... | —goseak hil baino lehen      |
| —topatu eban                  | edo... | —lizuna, gordina             |
| —ebateko <i>planta</i> egin   | edo... | —nahi izan                   |
| —bota <i>arin</i>             | edo... | —banan banan, bakoitzean bat |
| —osterantzean...              | edo... | —beraz...                    |
| —ostera ere miruak            | edo... | —bota bizkor                 |
| —erantzun eban <i>berriro</i> | edo... | —hurrenge egunetan           |
| —goseak hil <i>orduko</i>     | edo... | —beraz...                    |
| —lantzean bat jan             | edo... | —aurkitu eban                |
| —halanda ze,...               | edo... | —ebateko <i>itxura</i> egin  |
| —zantarra                     | edo... | —bestela...                  |
3. *Oso goian* adierazteko, *goi-goian* dio ipuin-kontalariak. Euskaraz sarri erabiltzen den bidea da hau. Zelan esango zenuke...?
- |             |         |
|-------------|---------|
| —oso txikia | — _____ |
| —oso polita | — _____ |
| —oso zikina | — _____ |
| —oso iluna  | — _____ |
4. *Kumeak* abereen umeak dira. Katuarena, *katakumea* da. Zelan deituko zenioke txakurrarenari?
- Astoarenari?
- Usoarenari?
- Eta txarriarenari?
- Lehoiarenari?
- Txoriarenari?
- Elefantearenari?

5. Azeri zaharra *alarauka* jausi zen goitik behera. Ezaguna duzu hitz hau? Zer esan nahi du?
6. Ipuinaren amaiera bitxia da: *¡Aparten peñas y pongan sábanas!* Batetik, erderaz esaten delako eta, bestetik, egoera larrian dagoen azeriaren burutazioa zelebrea delako. Zer esan nahi duela uste duzu?



**B. ONDO ULERTU DUT?**

1. Non zeukan bere habia Miruak?
  - a) Zuhaitz artean.
  - b) Zuhaitz baten.
  - c) Teilatupean.
2. Zergatik zegoen gosez Azeri txarra?
  - a) Negua zelako.
  - b) Ez zuelako jatekorik topatzen.
  - c) Zaharturik zegoelako.
3. Nola bota nahi zuen zuhaitza Azeri maltzurak?
  - a) Aurreko hankekin astinduz.
  - b) Aizkoraren laguntzaz.
  - c) Ezin zuen, baina buztanaz ebakitzeko planta egin zuen.
4. Zergatik eman zion Miruak Azeriari lehenengo kumea?
  - a) Itsusiena zelako.
  - b) Azeriak erosi egin ziolako.
  - c) Gainontzekoak salbatzeko asmoz.
5. Nola engainatu zuen Miruak Azeria?
  - a) Kumeak izkutatuz.
  - b) Basoko beste abereen laguntzaz.
  - c) Oilatoki eder batera eramango zuela esanez.



6. Zeru goi-goian zegoela, zer esan zion Miruak Azeriari?
  - a) Bertan behera botako zuela berehala.
  - b) Egindako kalte guztiak ordainduko zizkiola.
  - c) Oilategia ikusten zela.
7. Nola eskatu zuen laguntza Azeriak?
  - a) “¡Aparten peñas y pongan sábanas!” esanez.
  - b) Miruari parkamena eskatzen.
  - c) Haitzak paretik kentzeko otoitz eginez.



1. Ezaugarri hauetatik, zeintzuk dagozkio Azeriari eta zeintzuk Miruari, ipuin honetako jokabidean oinarrituta? Markatu gurutze batekin beheko koadroan bakoitzari dagokion hitza. Asma itzazu beste ezaugarri batzuk, batarentzat nahiz bestearentzat.

	<i>Azeria</i>	<i>Mirua</i>
fidakorra		
azkarra		
koitadua		
gaiztoa		
gizajoa		
maltzurra		

2. Zer iruditu zaizu Miruaren jokabidea? Ontzat ematen duzu? Eta Azeriarena?
3. Nola jokatuko zenukeen Mirua izan bazina?

4. Ea gogoratzen duzun nork esanak diren esaldi hauek:  
*Ene lagun! Lagun handia haz hi eta, eroan nagik hara.*  
*Ai! Eutsi bategaitik ba!*  
*Oilatoki hori topau behar joagu, goseak hil orduko.*
5. Zein da, zure ustez, ipuin honek eman nahi duen irakatsia edo mezua?
6. Abereei buruzko atsotitz edo errefrauk ugariak dira euskaraz. Atsotitzetan, alegietan bezala, mezu edo irakasbide bat ematen da. Zein da jarraian doazkizun errefrauen esanahia, a) ala b)?

—*Erroiaren arraultzeak usakumerik ez.*

- a) Umeak eta kumeak, gurasoen antzekoak dira.
- b) Usakumeak ez dira arraultzetatik jaiotzen.

—*Azeri zaharrari ilea joan, baina hatsa ez.*

- a) Azeriak ilea bizkor galtzen du.
- b) Pertsonak eta animaliek ez dituzte benetako ezaugarriak inoiz galtzen.



## *2. Azeria eta Otsoa*

Aulestiko Zubero auzoan egoan pozu bat, Legarreko pozua esaten jakona. Kofradia guztiak hara etorten ziran erropak garbituten, harri bigaz egoan eta.

Etxea be baegoan bertan, Legarrea eritxona, Legarreko etxea.

Eta haor non, egun baten etorri ei ziran Azeria eta Otsoa haraxe, Zuberora. Eta Legarreko pozuan Otsoak iretargia ikusi ei eban; zeruan egoan iretargia ikusi eban behean, uretan.

—Zelan hartu ete leiteke hori opil hain ederrori! —itandu ei eban Otsoak.

Otsoa beti tontoa eta Azeria beti zuhurra!

—Zelan harrapau hori? Ba horixe urori edanda! —erantzun ei eutsan Azeriak.

Hasi ei zan urori edaten Otsoori. Baina edan eta edan, azkenean atzetik urteten hasi ei jakon, eta Azeriak tapotza sartu eutsan, urok amaitu egizan.

Eta haor, amaitu ei eban ura, eta ura amaitu ebanean, pozuan dana basea ei egoan. Basea, baina iretargirik ez, opilik ez.

—Baina zer jazo jakok hareri opil hain ederrari? —itandu ei eutsan Otsoak Azeriari.

Eta honek erantzun:

—Hik ahoa be handitxua daukak eta, irunsi egingo henduan hik!

Legarreko etxea be hantxe hurrean, eta Legarrean gari-jotea ei egoan. Eta Legarreko atartea baino eskaratza askoz be beherago egoan.

Eta Legarreko leihoan gatzatua ei egoan. Eta gari-jotzaileak eskaratzean ei egozan jaten bien bitartean.

Azeriak, joan leihora, jan gatzatua nahikoa eta burua zuritu ei eban, buruko garaunak aterata baleukoz legez itxurea egiteko.

Orduan, joan da atartera Otsoori, eta atzetik joan jako Azeria, atera deutso txorkoa, eta hango ur parrastadeagaz gariak guztiak blai.

Eta eskaratza atartea baino beherago egoan legez, ura etorrela ikusi ebanean, urten dabe kanpora gari-jotzailak zer ete dan ikusten, eta non ikusten daben Otsoa atartean!

«Txibitak» dira tresna batzuk, metro bat inguru batera eta metro bat inguru bestera, taket luze bi, ugal-zati bategaz lotuta, jo eta jo ekitekoak. Garia joten danean harriaren gainean, gari-buruak askatu egiten dira, eta hareek buruak guztiak triletako ziran hareek txibitak.

Urten dabe atartera afaritan egozan gari-jotzailok, eta Otso gixajoori erdi hil egin dabe, *bint* eta *baunt*, *baunt* eta *bint*, txibitokin.

Eta Azeria, gatzatua nahikoa janda, sendo-sendo.

Eta gero oraindino zigorra ipini eutsen alkarrri, bietarik txarren egoanak bestea lepoan eroateko. Eta txarren zein egoan jakiteko, ebatzi eben, lehenengo topetan eben gizonari itandutea, ea garaunak aterata ebazana ala hazurrak hausita ebazana ete egoan txarrago.

Joan dira bidean aurrera, eta topau dabe Maixena zaharra:

—Adiskidea! Garaunak aterata dagoana ala hazurrak hausita dagoana dago txarrago? —itan-du eutsen.

Eta Maixena zaharrak:

—Garaunak aterata dagoana txarrago. Hazurrak hausita dagoana be txarto egongo da, baina garaunak aterata dagoana txarrago dago!

Azeria osasun onaz, eta erdi hilda Otsoa, baina Otsoa tontoa eta bestea Azeria. Eta oraindino handik ordu beteko bidean lepoan eroan behar izan eban Otsoak Azeria Katerrekako basoetara.

Katerrekak, Zuberoko basoak dira; ordubeteko bideak dagoz hara.

Eta haraxeino oraindino lepoan eroan behar, bota hor eta bota hemen, eta altzau hor eta altzau hemen. Eta halantxe, ailagau ei ziran Katerrekara.

\* \* \*

Orrospen esaten jakon etxe bat da han, eta Orrospengo buruak itandu ei eutsan Azeriari:

—Baina, mutil, nondik dok hori jakituriori?

Eta besteak erantzun ei eutsan:

—Kastatik, mutil, kastatik. Kolpe egiok ba horrerri gaztaina zaharrorri astatik!

Eta hantxe amaitu ei zan.



1. Ipuina, putzu baten hasten da. Antzina, arropak garbitzeko garbigailurik ez zegoen garaian, ura zegoen tokira joan behar izaten zen arropa garbitzera, erreka eta putzuetara. Bertan, harri bat edo batzuk jartzen ziren, arropa harriaren kontra igurtziaz garbitzeko. Harri hauek harri landuak ziren, jakina; ez zuen edozein harrik balio.



Zer egiten ari da irudian agertzen dena? Ikusi duzu inoiz inon arropa honela garbitzen? Entzun diozu inori honen berri? Galde egiezu zeure etxekoei edo adineko pertsonaren bati honelako putzurik ezagutu duten. Galde egiezu, baita ere, nola deitzen zioten toki horri. Zenbat urte da, gutxigorabehera, arropa era honetan garbitzen zela? Nola garbituko ote da arropa ehun urte barru?

2. Zein tokitan jazoten da ipuina? Badakizu non dagoen? Aurkitu ezazu mapan. Herria ala hiria da? Zergaitik?
3. Zein da hitz edo egitura hauen sinonimoa? Lotu gezi batez esanahi berekoak. Zutabe biak jarri arbelean eta ikasleak bi taldetan banatu, A eta B. A taldeko ikasle batek arbeleko edozein hitz edo esamolde erabiliz esaldia osatuko du. Hurrengo, B taldeko beste batek osatu beharko du esaldia, aurrekoak erabilitako hitz edo esamoldearen sinonimoa erabiliz. Honela jarraitu, hitz edo esamolde guztiak erabili arte.

— <i>iretargia</i> ikusi ei eban	edo...	— <i>galdetu</i> eban otsoak
— <i>opila</i>	edo...	— <i>jaso</i>
— <i>itaundu</i> eban otsoak	edo...	— <i>ataria</i>
— <i>garuna</i>	edo...	— <i>ilargia</i> ikusi ei eban
— <i>altzatu</i>	edo...	— <i>sukaldea</i>
— <i>atartea</i>	edo...	— <i>ogi biribil txikia</i>
— <i>eskaratza</i>	edo...	— <i>mamia</i>
— <i>gatzatua</i>	edo...	— <i>burmuina</i>

4. Ipuintxo honetan “gari-jotzailak” agertzen dira. Zer da gari-jotea? Badakizu zelan egiten zen? Zeintzuk dira lan horretarako lehen erabiltzen zituzten tresnak? Irakurri berriro ipuina eta bertan aurkituko duzu azalduta tresnetariko bat zein zen eta zelakoa zen. Ahalegindu lanabes horren iruditxoa egiten ipuinean azaltzen diren azalpenekin.
5. Ipuinak dio: *eta Legarreko pozuan otsoak iretargia ikusi ei eban*. Zer desberdintasun dago *ikusi eban* eta *ikusi ei eban* en artean? Bilatu ezazu ipuinean “ei” hitza. Zenbat aldiz errepikatzen da ipuinean? Ezagutzen duzu esanahi bera duen beste hitzen bat?
6. Gure artean nahiko ezagunak dira kostaldeko herrietan arrantzaleek dituzten kofradiak. Badakizu zertarako diren? Ipuin honetan, baina, beste era bateko kofradiak agertzen dira. Itaundu herri txikitxoren baten ermitaren baten inguruan bizi den bati kofradiak zer diren dakien ala ez. Baietz badiotsu, azaldu dezala kofradia horretan nortzuk ziren parte eta ze lan egiten zuten.
7. Konturatu zaitez esaldi honetan: *Kofradia guztiak hara etortzen ziran, harri bigaz* egoan eta. Esaldi hau esateko, beste honako forma hauek ere erabil ditzakegu, esanahia aldatu gabe:
 

*Kofradia guztiak hara etortzen ziren, harri bigaz* zegoelako.

*Kofradia guztiak hara etortzen ziren, harri bigaz* baitzegoen.

*Harri bigaz* zegoenez, *kofradia guztiak hara etortzen ziren*.

Erabil itzazu forma hauek, esaldiak egiteko. Lehendabizi, lau taldetan banatuko ditugu ikasleak. Honela, talde bakoitzak lau forma hauetariko bat erabili beharko du, aurreko taldeak erabili duenaren desberdina, baina oinarritzeko esaldi berdina erabilia. Abiapuntu gisa, hona hemen zenbait esaldi:

—Ilea moztu nuen, luze nuen.

—Jezarri egin nintzen, nekatuta nengoan.

—Emaidazu liburua, neurea da.

—Ezin dut jazo, pisu handiegia du.

—Ilea moztu nuen, luze nuen eta.

— \_\_\_\_\_

— \_\_\_\_\_

— \_\_\_\_\_

8. Onomatopeia, adierazten duen gauzaren zaratotsa imitatzen duen hitza da. *Ordulariak tik-tak egiten zuen*, esaterako. Ipuin honetan ere onomatopeia bat agertzen da. Zein da? Ezagutzen dituzun onomatopeiak erabiliz, esaldiak egin itzazu.



**B. ONDO ULERTUDUT?**

1. Zertara etortzen ziren kofradiak Aulestiko putzura?
  - a) Arropak garbitzera.
  - b) Lagunekin egotera.
  - c) Uger egitera.
2. Zer ikusi zuten Azeriak eta Otsoak putzu hartan?
  - a) Opila.
  - b) Erreka ondoko lizarren islada.
  - c) Opila bezain ederra zen ilargia.
3. Zer zela uste zuen Otsoak?
  - a) Ilargia.
  - b) Opila.
  - c) Igela.
4. Zer egin zuen otsoak “opila” harrapatzeko?
  - a) Bere burua uretara bota.
  - b) Ura edaten hasi zen.
  - c) Kainaberaz harrapatzen hasi zen.



5. Zer esan zion Azeriak Otsoari, ilargia topatu ezinik zebilenean?
  - a) Hodeiek estalita desagertu zela.
  - b) Otsoak bere ahoaz irentsi egin zuela.
  - c) Basatzan bilatu behar zuela, topatu arte.
6. Zer topatu zuen azeriak Legarreko leihoan?
  - a) Gari-jotzaileak hizketan.
  - b) Landare eder bat.
  - c) Gatzatua.
7. Zertarako zuritu zuen azeriak bere burua?
  - a) Nahigabeko gauza izan zen.
  - b) Otsoak bota zion gatzatua.
  - c) Garaunak ateratakoaren itxura hartzeko.
8. Zergatik irten ziren kanpora gari-joleak?
  - a) Ura zetorrela eta, zer ote zen jakiteko.
  - b) Azeriak eta otsoak egindako zarata zer zen jakiteko.
  - c) Behin lana amaituta, afari ederra egiteko.
9. Zergatik jo zuten otsoa, *bint eta baunt*, txibitekin?
  - a) Lapurretan topatu zutelako.
  - b) Azeriak hanka egin zuelako.
  - c) Gari guztiak berak busti zituela pentsatu zutelako.
10. Zein da elkarri jarritako zigorra?
  - a) Bata bestea lepoan eroatea.
  - b) Gatzatu gehien jan zuena hiltzea.
  - c) Bietatik osoen edo ondoen zegoenak bestea lepoan eroatea.
11. Maixena zaharraren ustez, zein zegoen txartoen?
  - a) Garunak aterata zegoena.
  - b) Hazurrak hautsita zegoena.
  - c) Ez bata ez bestea.

1. *Otsoa beti tontoa eta azeria beti zuhurra* dio kontalariak. Aurkitu ezazu esaldi hau testuan. Konpara ezazu azeriaren izaera lehenengo eta bigarren ipuinean. Berdintsu azaltzen zaigu azeria? Nolakoa dela esango zenuke?
2. Ipuinak ez du argi esaten norena izan zen hobeto zegoenak bestea lepoan eramateko ideia. Abere bietatik zeini bururatu ote zitzaion?
3. Zenbat aldiz jo dio adarra Azeriak Otsoari?
4. Otsoa tentel gisa agertzen zaigu ipuin honetan. Honelako izaerarekin agertzen da otsoa beti ipuinetan? Ezagutzen duzu Otsoa maltzur agertzen den ipuinik?
5. Zein da zure ustez animaliarik:

<i>Ezaugarria</i>	<i>Animalia</i>
—zuhurrena?	— _____
—itsusiena?	— _____
—dotoreena?	— _____
—leialena?	— _____

6. Entzun duzu inoiz pertsona bati buruz *Hori azeria da* esaten? Zer esan nahi da? Azaldu zeure hitzekin.
7. Azeriaren jokabidearen antzekoak batzutan geure artean ere gertatzen dira. Hau da, baten bat ahulago edo ikusten badugu barre egiten diogu, bera izorratzen saiatzen gara... Ontzat ematen duzu honelako jokaera? Zergatik?
8. Azaldu zeure hitzetan, ipuin honen bitartez eman nahi den moraleja edo jarraibidea. Aukeratu bi hauetatik bat:
  - a) Mirua eta Azeria ez dira elkarren lagunak.
  - b) Txarto egiten duenari ostea etortzen zaio beti.
9. Aurreko ipuinean, txarto egin duenak “ordaindu” egin du. Honetan, oster, “garaile” jarraitzen du. Saia zaitez bata eta bestearen adibideak aurkitzen, eguneroko bitzitzan. Bietatik zein da zure ustez, bizitzan sarrien gertatzen dena?
10. Egin diezaiegun tartetxo bat atsotitzei. Saia zaitez euren esanahia ulertzen. a) eta b) aukeretatik bata batzen du zuzen atsotitzaren esanahia. Zein da?:
  - *Azeri zaharrak aila (buztana) luze, bera legezkoak besteak uste.*
    - a) Bakoitzak uste du beste guztiak norberaren antzekoak direla.
    - b) Guztiok gara desberdinak.
  - *Otsoak otsoari gaitzik ez, eta lapurrari lapurrak laztan.*
    - a) Bakoitzak bere antzekoak defendatzen ditu.
    - b) Otsoek eta lapurrek ez dute beste inor errespetatzen.
11. Asma ezazu egoera bat, atsotitz hauek erabiltzeko.

### 3.

## *Azeriaren hiru egiak*

Muruetako Telleria lekuan bateldun bat egon zan, Agiña izena eukana.

Lukito joan ei jakon, handik bide batez Kanalara oilo lapurretan joatekotan, eta esan ei eutsan bateldunari:

—Igaroten banozu hara beste aldera, hiru egia esango deutsudaz.

Baietz erantzun ei eutsan beste horrek.

Eta Lukitok, txalupara sartu zanean, lehenengoa honetara bota eutsan:

—Inoren ama be ona da baina, norberaren ama langorik ez!

Erdi inguruan joan zanean bigarrena esan eutsan:

—Iretargia be argia da baina, eguzkia baizen argi ez!

Hirugarrena esateko, txalupako bankotxuaren puntan puntan jarri zan, eta esan ei eutsan:

—Ni lakoak asko igaroten badozuz, ostera be daukazuzan fraka zaharrak eukiko dozuz!

Eta *dzast!*, salto egin ei eban eta Kanalara joan zan oilo lapurretan Lukito.

1. Ipuineko zenbait hitz agian ezezagunak izango dituzu. Saia gaitzen euren esanahia asmatzen edo hiztegiari aurkitzen. Lotu berdinak:
 

<i>Igaroten</i> banozu.	<i>Eguzkia bezain</i> argi ez.
<i>Ama langorik</i> ez.	<i>Pasatzen</i> banozu.
<i>Eguzkia baizen</i> argi ez.	<i>Ama bezalakorik</i> ez.
2. Aurreko abere-ipuinean onomatopeiaz hitzegin dugu. Hemen ere ageri zaigu bat, salto edo jauzi egitearena: *dzast!* Entzuna zenuen hitz hau? Nola ahoskatzen da? Saia zaitetz esaldi pare baten edo erabiltzen.
3. *Azeri* hitzaren sinonimoa da *luki*. Hemen, haur ipuinetan ohi den bezala, *Lukito* deitzen zaio, izen propio legez erabiltzen delarik. Era berean, *Axelko* edo *Azelko* ere erabiltzen dira. Osoa, *Otsoko* izendatzen da ipuinotan. Beste abere baturekin ere egiten da pertsonifikazio hau, aurrerago izango dugu ikusteko aukera.
4. Antzina, errekek pasatzeko zubi gutxi egoten zen. Txalupa edo batel txikiak erabiltzen zituzten erreken albo batetik bestera joateko. Kontakizun ugari dago batelean batetik bestera pasatzen zirenekoak. Ezagutzen duzu baten bat?
5. *Batela, untzia, itsasuntzia, potina, txalupa...* Beste zeintzu izen ezagutzen dituzu, itsasuntzi desberdinak izendatzeko? Zer desberdintasun dago euren artean?
6. Aurreko ipuinean aipatu dugu jadanik *ei* edo *omen* hitzaren erabilera. Konturatu zaitetz zenbat bider erabiltzen duen kontalariak ipuin honetan ere. Ez da harritzekoa behin eta berriro agertzea, ahozko hizkuntzan oso hedatua baitago bere erabilera. Kontatu zeuk entzundako zer bait, *ei* hitza erabiliz.
7. Trebatu gaitzen *baizen* edo *bezain* hitza erabiltzen, konparazioak egiteko. Ikasle guztiak bi ilaratan jarriko ditugu, aurrez aurre. Punta batetik hasita, bakoitzak bere burua aurrekoarekin konparatu beharko du, nahi duen ezaugarrian oinarrituta. Hona hemen zenbait adibide:
  - Ni ere karateka ona naiz baina zu ..... ona ez.
  - Ni altua naiz baina zu .....altua ez.
  - Ni lodia naiz baina ..... zu ..... lodia ez.

edo:

  - Ni zu ..... karateka ona naiz.
  - Ni zu ..... altua naiz.
  - Ni zu ..... lodia naiz.
  - Ni zu ..... lagunzalea naiz.
  - Ni zu ..... azkarra naiz.

1. Zelan deitzen da Telleriako batelduna?
  - a) Agiña batelduna.
  - b) Murueta jauna.
  - c) Lukito.
2. Zertara joan nahi zuen Lukitok beste aldera?
  - a) Oporretan joan nahi zuen.
  - b) Negua zetorrela eta, gordelekua bilatzera.
  - c) Oilo lapurretan.
3. Zein izan da Lukitok esandako lehenengo egia?
  - a) Ama guztiak direla onak.
  - b) Norberaren ama bezalakorik ez dagoela.
  - c) Lukitok ez zeukala amarik.
4. Eta bigarrena?
  - a) Ilargia ez dela gauez baino ikusten.
  - b) Ilargia eguzkia bezain ederra dela.
  - c) Ilargia ez dela eguzkia bezain argia.
5. Eta hirugarrena?
  - a) Bera bezain bezero zintzorik ez zuela edukiko.
  - b) Bera lako asko igaroez gero, laster txirotuko zela batelduna.
  - c) Egunero egin behar dela lan, zerbait irabazteko.
6. Zer esan nahi du horrekin?
  - a) Jendeak berak legez, ez badu ordaintzen, ez duela dirurik izango.
  - b) Bera bezalako asko eramanez gero, ez duela astirik izango frakak erosteko.
  - c) Ez bata ez bestea.

1. Non gertatzen da ipuin hau? Lokaliza itzazu mapan ipuinean agertzen diren bi herriak. Badago gaur egun herri bi horiek lotzen dituen zubirik? Nola deitzen da Lukitok igaro zuen erreka? Nola deitzen zaio inguru horri?
2. Ibili zara zu inoiz txalupan? Non? Azaldu ezazu zeure esperientzia. Imagina ezazu Lukito eta bateldunarekin batera zeu joan zarela batelean eta egin marrazki bat.
3. Lukitok hiru egia esan dizkio bateldunari. Ados zaude zu egia hauekin? Zeuk asmatu beharko bazenitu munduko hiru egia nagusiak, zeintzuk izango lirateke?
4. Konpara ezazu azeriaren izaera ipuin honetan eta aurreko bi ipuinetan. Antzekoa ala desberdina da? Ezagutzen duzu azeria gizajo legez agertzen den kontakizun edo ipuinik?
5. Ipuin honetan, aurrekoan bezala, “gaiztoa” suertatzen da “garaile”. Asma ezazu beste bukaera bat ipuin honentzako.



## 4. *Txolin Sierra*

Urriolan Txakurra ei egoan, Urriolako Sierrean, Txolin izena ebana: Txolin Sierra.

Eta Xoxote, zozoa zan.

Eta Sierreko harestitxu baten Xoxote kantetan ei egoan.

Badator Azeria, eta kantuan Xoxote.

—Xoxote, zer da ba hain alegre?

—Egongo ez nok ba alegre! Hiru alaba jaukadaz, eta bata baino bestea politagoak.

—Bota eidak neuri bat, zelakoa dan ikusteko.

—Ba! Heuk jateko!

—Ez deuat jango, bota eidak!

Eta bota deutso.

—Bai polita be dana! Bota eidak beste bat be! —Azeriak.

—Ez, ez naioak botaten! —Miruak.

—Bota eidak —Azeriak.

Bota deutso ba. Hirugarrena be halantxe apreminau jako, eta bota eragin deutso hirugarrena be, eta jan deutzaz azeriak Xoxoteri zozo kumatxoak.

Haor gero Xoxote negarrez.

Ei dator Txolin, Txolin Sierra, Sierreko txakurra, eta:

—Xoxote, zer jazoten jak!

—Zer jazoten jatan? Hiru alaba euki joadaz bata baino bestea ederragoak, eta azeriak jan egin jaustazak!

—Esan egiok neu nagoala min eginda! Neuk iruntsiko joat bera be! —bota eutsan.

—Bai horixe! —Zozoak.

Handik geroagora, engainau behar eban azeriori Xoxotek, eta Xoxote kantetan.

—Xoxote, zer dok hain alegre!

—Txolin Sierra jagok haor hilda!

—Bai zera! Hik guzurra dinok!

—Ez guzurra, hilda jagok eta! Ea, erpeka egiok matrailan!

Egin deutso erpeka matrailan, eta hilda balego legez Txolin.

—Bai, hilda jagok!

—Ea, egiok ahora txixa!

Hasi jako ahora txixa egiten, eta iruntsi dau Azeriori Txolinek.





1. Aurkitu ezazu hitzegian hitz hauen esanahia:
  - matraila
  - erpeka
  - iruntsi
  - txolin
  - bota eragin
2. Xoxote da ipuin honetako protagonista. Zein abereren pertsonifikazioa da?
3. Badakizu nolako hegazia den zozoa? Aurkitu ezazu bere irudia eta berari buruzko informazioa libururen baten.
4. Zozoa kantatzen agertzen zaigu ipuinean. Beste zeintzu txori ezagutzen dituzu polito kantatzen dutenak? Ezagutzen dituzu txoriak beren kantutik ezagutzen dituen pertsonarik?
5. Ipuinean zozoa hariztitxu baten dago, hariztian. Zein zuhaitz da haritza? Ezagutzen duzu? Aipa itzazu ezagutzen dituzun zuhaitz eta arbola guztien izenak. Badago urrunetik ikusita edo hurbiletik bere hostoari begiratuta ezagutzen duzun zuhaitzik? Zein? Nolako itxura du? Eta bere hostoek? Zeintzu zuhaitz eta arbolek galtzen dute hostoa udazkenean? Zeintzuk ez? Nola deitzen zaio lurrera jausitako hostoari?
6. Ipuina oso-osorik dago hika. Duela urte batzuk hikan hitzegitea oso arrunta zen arren, gaur egun asko murriztu da berbakera honen erabilera. Ezagutzen duzu erabilera hau? Ezagutzen duzu era honetako aditzak erabiltzen duenik? Azter ditzagun esaldi batzuk:
 

*Egongo ez nok (naz) ba alegre!*  
*Hiru alaba jaukadaz (daukadaz).*  
*Ba! Heuk (zeuk) jateko!*

Orain saia zaitetz zeu hika dauden esaldi hauek zuka jartzen, testuinguruan oinarrituta:

*Xoxote, zer jazoten jak!* \_\_\_\_\_

*Hiru alaba euki joadaz.* \_\_\_\_\_

*... eta azeriak jan egin jaustazak.* \_\_\_\_\_

*Hilda jagok!* \_\_\_\_\_
7. Xoxotek dioenez, hiru alaba ditu, *bata baino bestea politagoak*. Bere alabak oso oso politak direla adierazi nahi du esamolde honekin, hain zuzen ere, ez dagoela politena zein den jakiterik adierazi nahi du. Saia zaitetz esamolde hau erabiltzen zure anaia biak okerrak direla esateko, edo zure gurasoak gogorrek direla adierazteko, edo neska bi azkarrak direla esateko, adibidez.
8. Ikasleak binaka jarri eta bata besteari konta diezaiotela ipuina. Lehenengo erdia bata besteari, eta bigarren zatia aldearantziz, besteak batari.

**B. ONDO ULERTU DUT?**

1. Nola deitzen zen Urriolako txakurra?
  - a) Urriolako Sierra.
  - b) Txolin Sierra.
  - c) Ez zeukan izen ezagunik.
2. Zergatik zegoen hain pozik Xoxote?
  - a) Zein baino zein politago zirelako bere alabak.
  - b) Hariztian kantatzen zegoelako.
  - c) Udaberria heldu zelako.
3. Zer eskatu zion Azeriak Xoxoteri?
  - a) Alaba guztiak batera berari botatzeko.
  - b) Kantatzeari uzteko.
  - c) Kumeak berari banan-banan eskatzen joan zitzaion.
4. Zergatik topatu zuen Txolin Sierrak Xoxote negarrez?
  - a) Azeriak hiru alabak jan zizkiolako.
  - b) Udaberria amaitzean handik alde egin behar zuelako.
  - c) Azeriak bera jango duen beldur delako.
5. Nola engainatu zuten Txolin Sierrak eta Xoxotek Azeria?
  - a) Xoxote hilda zegoela esanez.
  - b) Txorikume gehiago eskainiz.
  - c) Txolin Sierra lurrean etzanda, hildakoaren plantak eginez.



1. Zeintzuk abere ditugu protagonista ipuin honetan?
2. Zelan kendu dizkio azeriak kumeak Xoxoteri? Zer uste izan du Xoxotek, azeriak jan egingo zizkiola kumeak? Zer iruditu zaizu Xoxoteren jokaera, ondo egin du kumeak eman da ala ez zuen azeriaz fidatu behar? Eta azeriak? Azeriak ez du bere hitza bete. Ondo deritzozu? Eman diozu inoiz hitza inori? Bete duzu? Zer nolako garrantzia du baten bati hitza emateak?
3. Oroimena lantzen. Nork esana da: *Bai, heuk jateko!?* Eta: *Ea, egiok ahora txixa?* Eta: *Xoxote, zer dok hain alegre!?* Eta: *Bai polita be dana!?*
4. Lehenengo ipuinean, “Mirua eta Azeria”n, Miruak bere kumeak galdu ditu. Honetan Zozoa da bere kumeak galdu dituen. Zer desberdintasun dago Miruaren eta Zozoaren jokabidearen artean?
5. Txolin Sierra ipuin honetako txakurraren izen propioa da. Baduzu zuk txakur, katu edo zaldirik? Nola du izena? Zer beste txakur, katu, asto, behi, hartz.... izen ezagutzen duzu?
6. Konpara ezazu ipuin honen bukaera lehenengo eta bigarren ipuinetakoarenaz. Bi hauetariko zeinekin dauka antzekotasun gehiago?
7. Atsotitz honek ez dauka ipuin honekin zerikusirik, baina hemen doakizu, halere, erabiltzeko okasiorik ez zaizu falta-ko eta:  
—*Hontzari ez begiratu lumara.*

Edo berdina, kanpoko itxura ez dela izaeraren adierazgarria. Nola azalduko zenuke zeure hitzak erabilia? Asmatu egoera bat eta erabili atsotitz hau.





## *5. Abereen batzarra*

Esaten dabe antxina baten egon zala abereen artean gaxo handi bat, eta hiltzen ei ziran hamabinaka asto, hamabinaka tigre, hamabinaka lehoi, hamabinaka otso.

Holan hasi zanean, buruak emon eutsen:

—Hau, seguruen, Jainkoak guri bota deuskun zigor gogorren bat izango da, pekatu handiren bat egin dogulako.

Eta orduan erabagi eben:

—Egin behar doguna da, danok batu hemen, holako landa handi baten, eta bakotxak autortu dagizala bere pekatuak hantxe danen aurrean, erruduna nor dan jakiteko.

Batzartu ziran ba, eta lehenengo Lehoiak egin eban berba, eta esan eban:

—Abereen artean errege nazan aldetik, neuk esango joat lehenengo. Ba ni ez nok gomutetan inongo errurik daukadanik. Nik noizik behin ahume bat edo bildots bat jaten joat, baina Jainkoak zetako emon eustazan, ba, honeek erpe ederrok!

Gero Trigeak berba egin eban, eta harek be bardin esan eban:

—Nik beste honako zebraren bat edo ahuntz batzuk jaten joadaz, baina Jainkoak, nik pentsetan joat, horretarakoxe emon eustazala honeek abilidadeok!

Holan joan ziran banan-banan danak euren esaten, eta ailegau jakon azkenean ordua Asto gixajo bati. Astoari esan eutsien:

—Ea, hik zer egin hoan heure denporan?

—Ni ez nok gomutetan ezegaz be. Ni errota baten naiagok eta errotariaren zorroak etxe batera eta bestera eroan, eta harexen makila-katxaba batzuk hartu eta jarraitu aurrera. Holan nabil beti!

Eta gero esan eban:

—Bakarrik, baten akordetan naz, errotariak zorroakaz eroan ninduan, eta bedar apur bat jaten itxi ninduan, berak soloan ebilen gizon bategaz berba egin artean. Eta berbetan egoan bitartean, ni be xirrika-mirrika gari solo baten sartu nintzan, garia heldu-heldu egoan lekuan, eta hareexek kopau eder batzuk hartu nebazala!

—Madarikatua! —esan eutsien.

—Horixe dok erru guztiak daukazana!

Eta orduan asto gixajoa zigorkadaka astindu eben.



1. Azpimarra itzazu testuan ezagutzen ez dituzun berbak eta, testuinguruan oinarrituta, beren esanahia asmatzen saiatu. Ondoren, hiztegia bilatu, ea zuzen ibili zaren jakiteko. Egin ezazu esaldi bat bakoitzarekin, ahoz.
2. Jarraian dauden bi zutabe hauetako hitz edo esamoldeak sinonimoak dira. Eskuinaldeko zein hitz edo esamolde dago-  
kio ezkerreko bakoitzari? Asma itzazu zenbait esaldi, hitz edo esamolde hauek erabiltzeko, ahoz.
 

— xirrika-mirrika	— hitz egin
— batzartu	— zerbait jan
— berba egin	— bildu
— gomutatu	— astiro eta isilik
— kopaua egin	— gogoratu, oroitu
3. Kontura zaituz nolako esamoldea darabilen kontalariak, animalia asko eta asko bapatean hiltzen zela adierazteko: *Hamabinaka asto, hamabinaka tigre...* eta ez *hamabi asto, hamabi tigre...* Lortzen du, zure ustez, nahi duen eragina?
4. Zer hitz, zer izenlagun erabiltzen du kontalariak Astoari egokituta?
 

Asto	{	azkarra zintzoa gizajoa zuhurra
------	---	--
5. *Asto gixajoa zigorkadaka astindu eben.* Zer esan nahi du *astindu* hitzak esaldi honetan? Beste zer esangura du?
6. Ikasle desberdinen artean, ipuina osatzen saiatuko dira. Ikasle bat hasten da, zati labur bat kontatzen, bizpahiru esaldi baino ez. Bere zatitxoa amaitzean, berak izendatu behar du hurrengo kontalaria, kontaktarekin jarrai dezan. Honek, bere zatitxoa kontatu ondoren, beste ikasle bat izendatuko du... eta honela amaitu arte.



1. Zergatik hiltzen ziren abereak?
  - a) Ehiztariak tirokatzen zituztelako.
  - b) Abereen artean guda handia egon zelako.
  - c) Abereen artean gaisotasun handi bat egon zelako.
2. Abereen ustez, zein zen eriotzen arrazoia?
  - a) Izurrite handia zabaldu zela.
  - b) Jainkoak botatako zigor gogorra zela.
  - c) Ez zekiten zein izan zitekeen arrazoia.
3. Zer erabaki zuten orduan abereok?
  - a) Guztiak bildu eta bakoitzak bere pekatuak aitortzea.
  - b) Beste lurralde batera joatea.
  - c) Denak biltzea, sendagile ezagun batek sendatzeko.
4. Zergatik izan zen Lehoia lehenengoa hitz egiten?
  - a) Adintsuena zelako.
  - b) Inolako errurik ez zeukalako aitortzeko.
  - c) Abereen artean erregea zelako.
5. Tigrearen ustez, berak zituen abildadeak, zertarako ziren?
  - a) Zebraren bat edota ahuntz batzuk jateko.
  - b) Arrisku handietatik babesteko.
  - c) Oihanean ondo defendatzeko.
6. Zein zen Astoak egiten zuen lana?
  - a) Errotako harria etengabe mugitzea.
  - b) Errotariak agindutako lana goizetik gauera betetzea.
  - c) Errotariaren zorroak etxe batetik bestera eroatea.
7. Zergatik leporatu zioten errua Asto koitaduari?
  - a) Errotariaren aginduak txarto betetzen zituelako.
  - b) Xirrika-mirrika gari-soro baten sartu zelako.
  - c) Belar apur bat jan zuelako.



8. Zer gertatu zitzaion Astoari?
- Beste abereok egurtu egin zutela.
  - Baso hartatik bota egin zutela.
  - Zaharturik zegoen eta laster hil egin zen.



- Antzina, baserritarrek, etxean hartutako garia errotara eramaten zuten, bertan irin egin arte eho zezaten. Behin ehota, berriro eramaten zen etxera, ogia egiteko. Ogia etxean egiten zen, noski, etxean prestatu oreka eta etxean bertan egosi, labean. Zer dakizu erroter buruz? Badakizu nolakoak ziren eta nola ibiltzen ziren?
- Zein da, zure ustez, ipuinak eman nahi digun jarraibidea? Aukera ezazu hiru hauetatik:
  - Inori kalterik ez egiten saiatu behar dugu.
  - Okerren bat egin duena agerian geratzen da lehenago edo geroago.
  - Errurik ez duenak jasotzen du sarritan zigorra.
- Hona hemen atsotitz bat:
 

—*Ardien gaiztakeriak bildotsak pagatu.*

Badu ipuin honen mezuarekin zerikusirik?
- Hona hemen beste bi atsotitz. Zer adierazi nahi dute?
 

—*Asto asko, lasto asko.*

—*Astoa osinean, irriz irri itotzean.*
- Kontakizunean Tigrearen eta Lehoiaren abildadeak kontaktzen dira. Astoa, asto fama eduki arren, jaten oso fina omen da. Diotenez, lasto pilo baten jostorraz bat egonda ere, Astoak bakarrik lastoa jango omen luke, jostorratza albo batera apartatuta. Hain ei da fina! Zein da, zure ustez, animalia hauen abildade nagusia?

Saguarena: \_\_\_\_\_

Katuarena: \_\_\_\_\_

Astoarena: \_\_\_\_\_

Zaldiarena: \_\_\_\_\_

6. Badago animalia trakets eta abilik, ala guztiak dira zerbaitetan abilak eta zerbaitetan traketsak? Eta pertsonok?
7. Eztabaidarako gaia: Ipuinean agertzen diren hiru abereetatik, zeinek merezi zuen makilakada edo astindua?. Arrazoitu zeure erantzuna.
8. Ipuin, pelikula, liburu batzuk “ondo” amaitzen dira. Beste batzuk, ordea, “txarto”. Zeintzuk dituzu zuk gustuko? Jar itzazu kasu batoren eta bestearen adibideak.



## 6. *Astoa, Txakurra, Katua eta Oilarra*

Baten Asto bat egoan bere etxean. Makilaka erabilten eben eta jaten be beti, bedarra eta lastoa, berari eskasen emoten eutsien. Orduan pentsau eban:

—Alde egin behar dot nik etxetik, ze hemen ez deuste gura niri!

Eta badoa bidean zehar Asto koitaduori, eta baserri baten atean Txakur bat topau dau, eta Txakurrori zaunka eta zaunka, *guau, guau!*, eta dinotso:

—Txakurra, hori da umore ona daukazuna!

—Bai, ez dodala etxea ondo zaintzen, eta etxetik kanpora bialdu nabe.

—Ene! Ez estutu! Goazen batera, biok lagunak izango gara!

Badoaz biak eta, joan eta joan, Katu bat topau eben, ha be miauka, *miau, miau!*

—Katua, hori da umore ona daukazuna! —esan eutsen.

—Bai, sagurik be ez dodala harrapetan, eta etxetik kanpora bota nabe. Erantzun eban Katuak.

—Etorri, etorri geugaz, danok lagunak izango gara! Astoak eta Txakurrak.

Badoaz aurrera, eta halako baten Oilar bat baserri baten kukurrukuka, *kukurruku, kukurruku!*

Hari be bardin:

—Oilartxua, hori da umore ona daukazuna!

—Bai, ez dodala jan baino egiten, eta etxetik kanpora bota nabe! —Oilarrak.

—Etorri, etorri, danok konponduko gara!

Badoaz joan eta joan, eta halako baten iluntzen hasi zan, eta pentsau eben:

—Gaua egin behar deusku, eta lo be non edo non egin beharko dogu, eta ia ba!

Esan eutsan Katuak Oilarrari:

—Oilarra, igoizu neure lepo gainera, ea argirik inon ikusten dozun.

Eta Oilarrak esan eutsan:

—Zeozer, zeozer han mendi puntan ikusten dot.

—Bueno, orduan igoizu astoaren gainera!

Eta Astoaren gainera igo ebanean:

—Bai! —esan eban—. Hantxe urrin urrinean argi txikitxu bat ikusten dot.

—Bueno, ba, joan egingo gara!

Eta joan ziran danok mendira eta han etxe bat aurkitu eben. Baina inor be ez zan barrura joaten ausartzen, ze ez ekien hutsik egoan ala baten bat bizi zan eta. Halako baten Katuorrek igo eban geldi-geldika eta ikusi eban hutsik egoala.

Ha zan lapur batzuen etxea, baina gabaz kanpoan ibiltzen ziran eta hutsik egoan. Joan ziran gero danak, han topau eben zer jan. Jan eben lehenengo nahikoa, eta pentsau eben:

—Honen ugazabak datozenerako bakotxa bere lekuan jarri behar gara hemen.

Eta esan eutsien Oilarrari:

—Zu tximinia gainean jarri, posporuen ondoan!

Katuari esan eutsien:

—Zu suaren ondoan jarri!

Eta Astoak esan eban:

—Ni eskilara buruan plantauko naz, eta eskepean Txakurra.

Halako baten etorri da Lapurrori, eta joan zan gora, hasi da posporoak hartzen, eta piko-piko Oilarrak. Gero sua ixiotuten eta fu-fu katuak.

—Baina, Jesus!, zer da hau? Hemen ezin leiteke!

Badoa urtetera, joten dau astoak ostikoaz eta eskilaretan behera han doa bira-biraka. Urten eban barriz, eta Txakurak haginka egiten deutso.

Heldu da bere lagunakana eta dino:

—Hemen ezin leiteke! Ni neu ez noa barriro!

—Zu kobarde bat zara!

Esan eutsien besteak:

—Horixe bai, joango ez gara ba!

Joan zan beste bat eta hari be bardin. Eta ikusi ebenean ezin leitekeala, pentsau eben:

—Bueno, itxi egin beharko deutsegu eurai eta alde.

Alde eben besteak eta lau lagunak geratu ziran etxean.

Eta gero bakotzak bere beharrak hartu zituan. Batzuk zotxamarra batu sua ixiotzeko, besteak bazkaria egin, eta besteak etxeko beharrak, eta danak edertotxu konpondu ziran.

Eta hau holan bazan, sartu dagiela kalabazan eta urten dagiela Markinako plazan.



1. Hiztegia lantzen. Aurkitu itzazu testuan honako hitzok eta, baten bat ezagutzen ez baduzu, saiatu beraren esanahia asmatzen, testuinguran oinarrituta. Hiztegian begiratu zure eritzia ziurtatzeko.

Ostikoaz jo: \_\_\_\_\_

Sua ixiotu: \_\_\_\_\_

Zotxamarra: \_\_\_\_\_

Beharrak: \_\_\_\_\_

2. Lagun biren artean edo taldean egiteko. Batak ezkeraldeko zutabeko berba bat eta eskumako guztiak esaten ditu. Besteak edo talde nagusiak multzo horretatik lehenengo hitzaren sinonimoa zein den esan behar du eta, ondoren, esaldi baten erabili. Hona hemen hitz multzoak:

Ez estutu                      Nonbait

Non edo non                Jabea

Zeozar                        Norbait

Baten bat                    Ez larritu

Ugazaba                    Zerbait

3. *Halako baten* sarri erabiltzen den esamoldea da. Hona hemen adibide batzuk:

*Ikasten nengoen eta, halako baten, eulia jarri zitzaidan aurrean.*

*Oinez paseatzen gindoazen eta, halako baten, kukuaren kantua entzun genuen.*

Lokaliza ezazu ipuinean esamolde hau. Asma itzazu bizpahiru esaldi, esamolde hau erabiliz.

4. Animaliek egiten dituzten soinuek izena dute. Esaterako:

Txakurrak *zaunka* egiten du.

Oiloak *kokoriko* egiten du.

Zaldiak *irrintzi* egiten du.

Behiak *orro* egiten du.

Ipuinean, animalia gehiagorenak agertzen dira. Aurkitu itzazu.

5. Hurbil eta urrun esateko hitz asko dago euskaraz. Inguru batetik bestera alde handiak dira. Testuan “urrin-urricanean *argi txikitxu bat ikusten dot*” dio. Zeintzuk hitz erabiltzen dira zure inguruan, *hurbil* eta *urrun* adierazteko?

1. Zer ematen zion jabeak Astoari?
  - a) Jatekoa, nahi zuen beste.
  - b) Makilakadak baino ez.
  - c) Bedarra eta lastoa besterik ez jateko.
  
2. Norekin egin du topo Astoak, bidean doala?
  - a) Bera bezain zoritzarreko den beste asto batekin.
  - b) Beraren bila datorren nagusiarekin.
  - c) Zaunka eta zaunka dagoen Txakurrarekin.
  
3. Elkarrekin doazela, nor aurkitu dute bidean?
  - a) Miauka dabilen Katua.
  - b) Umore oso txarrez dagoen Otsoa.
  - c) Bi lapur gaizto.
  
4. Zergatik bota dute Katua etxetik?
  - a) Jabeak katu berria ekarri duelako.
  - b) Bada, sagurik ere ez duelako harrapatzen.
  - c) Alfer samarra eginda dagoelako.
  
5. Bidean topatu duten Oilarra, berriz, etxetik kanporatu dute:
  - a) Jan baino ez duelako egiten.
  - b) Goizaldean barik iluntzean abesten duelako.
  - c) Oilategiko beste oilarrekin ez delako ondo konpontzen.
  
6. Zergatik ez ziren ausartzen etxe barruan sartzen?
  - a) Lapur gaiztoak bertan zeudelako.
  - b) Ez zekitelako hutsik zegoen ala baten bat bizi zen bertan.
  - c) Ate aurrean Txakurra zegoelako jagoten.
  
7. Lapurra irteterakoan:
  - a) Astoak ostikoaz jo zuen eta oihuka alde egin zuen.
  - b) Oilarra mokokadaka hasi zitzaion, piko eginez.
  - c) Txakurrak haginka egin dio.

8. Lapurrak alde egin eta gero, abereok:
- a) Etxea utzi eta bakoitza berera itzuli zen.
  - b) Mundua ezagutzera joan ziren.
  - c) Etxean gelditu ziren, beharrak guztien artean banatuz.



C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. Ipuinean animalia bakoitzaren lana edo beharra agertzen da. Txakurraren egitekoa, esaterako, etxea zaintzea da. Zein da Katuarena, ipuinaren arabera? Eta Oilarrarena? Aipa itzazu beste animalia batzuk eta beren betebeharrak.
2. Zein izenlagun erabiltzen du kontalariak ipuin hasieran, Astoa aipatzen duenean?
3. Ea gogoratzen duzun non jarri ziren abereak, etxe barruan:  
Oilarra, \_\_\_\_\_ren gainean jarri zen. Katua, berriz, \_\_\_\_\_ren ondoan; Astoa \_\_\_\_\_n plantatu zen eta Txakurra \_\_\_\_\_n.
4. Ipuineko astoa, *makilaka erabiltzen eben*. Nola tratatzen ditugu, zure ustez, animaliak? Zer egiten dugu ondo eta zer txarto animaliekin? Zer erakunde ezagutzen duzu animaliak babesten dituenak?
5. Zertarako erabiltzen ziren antzina astoak? Garia errotara eroateko, ganaduarentzako bedarra etxeratzeko... zama eroateko, beraz. Gaur egun, ikusten duzu astorik? Zergatik ote da?
6. Errotak aipatu dira ipuin honetan. Bila ezazu errotei buruzko informazioa kontsulta liburuetan.
7. Ipuinaren amaiera euskarazko ipuinetan ohizkoa den esaldiarekin egiten da: *Eta hau holan bazan, sartu dagiela kala-bazan eta urten dagiela Markinako plazan*. Ezagutzen duzu esaldi hau edo bere antzekorik?
8. Atsotitzak:  
—*Bi etxetako txakurra goseak hil.*  
—*Bi ugazabako etxea, kaltea.*  
Zein da beren esanahaia? Aukera ezazu bi hauen artetik:  
a) Biren edo gehiagoren eskuan dagoenean zerbait, gaizki ateratzen da kontua.  
b) Lanik egiten ez duenari damutuko zaio halako baten.  
Konforme zaude? Gogoratzen duzu behin edo behin gertatu den egoeraren bat non atsotitz hau egokitzen den?



## 7. *Gizona eta Otsoa*

Gizon bat joan zan biajean, eta bidean kantara baten aurretik igarokeran, Otsoa topau eban etxunda kantara ertzean, harri bat lepoan ebala, ha altzau ezinik.

Eta dinotso Gizonari:

—Gizona, kendu eidak harria!

—Bai, baina hik jan egingo nok neu igoal...

—Ez, ez, ez haut jango; kendu eidak mesedez, ezin altzau joat eta!

—Ondo jagok!

Kendu eutsan harria Gizonak, eta gero biak joan ziran aurrera bidean, eta Otsoak esan eutsan:

—Etxoat ezer aurkitzen eta heu jan beharko haut igoal...

—Ez daukak arrazoirik!

—Ba, nok daukan arrazoia, lagun bat topetan dogunean bidean, hak esan dagiala.

—Bueno, ba, ondo jagok!

Lukia topau dabe gero, eta:

—Hik zer dinok?

—Zer ba, eztabaidea daukazue ala?

—Honek, lepotik kendu neuk harria eta, neuk hainbeste mesede egin eta, orain jan egin behar naualakoa dino.

—Baina zelan, zelan da hori, ba? Goazen barriro, ea zelan izan dan ikustera.

Barriro joan ziran kantarara, Otsoa harripean egon zan lekura, eta:

—Harriak lehengo moduan ea! —Otsoari esan eutsan Lukiak, eta Otsoa parau zan lehengo moduan, harri handia bere gainean imini eutsien, eta gero Lukiak esan eutsan ondino Otsoari:

—Otsoko esker gaiztoko, egon hadi berton usteldu arteko!



1. Jolas dezagun gure hizkuntzarekin. Hitz hauek sinonimoak dira. Egin esaldiak bietakorenbat erabiliz:

igaro	edo	pasatu
altxatu	edo	jazo
usteldu	edo	galdu
topatu	edo	aurkitu

2. Jarrai dezagun berbekin jolasten. Ipuineko zeintzuk hitz izkutatzen dira letra eta silaba hauen artean?

A - R - A - H - R - I \_\_\_\_\_

I - U - L - K - A \_\_\_\_\_

T - O - O - O - S - K \_\_\_\_\_

R - Z - A - O - A - A - R - I \_\_\_\_\_

RRI - BA - RO \_\_\_\_\_

DU - TEL - US \_\_\_\_\_

ON - NO - DI \_\_\_\_\_

NO - DI - TSO \_\_\_\_\_

3. Otsoa *harripean* zegoen, harri azpian. “-pean” atzizkiak “azpian” adierazten du. Nola esango zenuke, atzizki hau erabilita:

Zubi azpian? \_\_\_\_\_

Mahai azpian? \_\_\_\_\_

Ohe azpian? \_\_\_\_\_

Zuhaitz azpian? \_\_\_\_\_

4. Atzizkia, hitzaren bukaeran itsas daitekeen osagaia da. Hitzaren amaieran itsasten da honen esanahia betetzeko edo esangura bereziz hornitzeko. Hona hemen beste bi atzizki, adibidez:

-ARI (aritu)

pilotan aritzen dena: *pilotari*.

tabernan aritzen dena: \_\_\_\_\_

arraunean aritzen dena: \_\_\_\_\_

-DUN (eduki)

gonak dituena: *gonadun*.

betaurrekoak dituena: \_\_\_\_\_

bizarra duena: \_\_\_\_\_

1. Zer topatu zuen Gizonak, bidean zihoala?
  - a) Urrezko harrobia.
  - b) Otsoa etzanda, harrobi ertzean.
  - c) Otso harrijasotzailea, bere lanetan.
2. Zergatik eskatu zion laguntza Otsoak Gizonari?
  - a) Harrizarra zuelako lepoan.
  - b) Gose zelako.
  - c) Ehiztariengandik babesteko.
3. Zelan ordaindu zion mesedea Otsoak?
  - a) Edozein arazotan elkarri laguntzeko prest azaldu zen.
  - b) Gose izanda, berau jan behar zuela erabakiz.
  - c) Azeriagandik bere burua babestuz.
4. Eztabaidatan zeudela, nori eskatu zioten laguntza?:
  - a) Bidean aurkitu zuten Lukiari.
  - b) Baso hartako Lukien nagusiari.
  - c) Bidean topatu zuten beste gizon bati.
5. Zer proposatu zien orduan Lukiak?:
  - a) Bien artean konpontzeko ahaleginak egitea.
  - b) Berriro harrobira joatea, gertatutakoa hobeto ulertzeko.
  - c) Ez zien jaramonik ere egin.
6. Zer dio Azeriak, ipuinaren amaieran?
  - a) “Otsoko, ezker gaiztoko, egon hadi berton usteldu arteko”.
  - b) “Otsoko, ezker gaiztoko, harripean gelditu betiko”.
  - c) “Halako gizonak azeria behar burua altxatzeko”.

1. Aukera ezazu, hiru hauen artean, ipuinaren moraleja edo irakatsia:
  - a) Txarto portatzen denari beti datorkio ostea.
  - b) Ez da ona etzanda denbora gehiegi egotea.
  - c) Lukiak ez dira lagun onak.
  
2. Asma ezazu ipuinaren jarraipena. Zer gertatzen da Otsoa berriro altxatu ezinik geratu ondoren?
  
3. Konpara ezazu Otsoaren portaera ipuin honetan eta bigarrenean. Azeri edo Lukia Gizonari laguntzen agertzen zaigu ipuin honetan. Konpara ezazu azeriaren jokabide hau aurreko ipuinetan izan duenarekin.
  
4. Nork esanak dira esaldi hauek?:
  - “Bai, baina hik jan egingo nok neu igoal...”.
  - “Zer ba, eztabaidea daukazue ala?”.
  - “Ez daukak arrazoirik!”.
  - “Gizon bat joan zen biajean...”.
  
5. Atsotitza:
 

–*Amuarrainak begi bi, sei ezkailuk hamabi.*

Badu errefrau honek zerikusia irakurri dugun ipuinarekin. Saia zaitetz esanahia asmatzen:

  - a) Handia beti nagusitzen da.
  - b) Elkartasunez indarra lortzen da.

Azaldu zeure hitzekin. Hurrengo aukera duzunean, erabil ezazu atsotitza!





## *8. Azeriak eta Amiamua*

Azeriak konbidau eban Amiamua edo Zikoinea bere etxera. Berba egiten eben orduan abereak edo piztiak. Eta esan eutsan:

—Egun baten etorri eta tripakada handi bat egin behar dogu.

Eta jakina, Azeriak eroan eban bere etxera, eta han kazuela handi bat, baina bape sakontasunik ez daukana atera eutsan. Eta han gauza asko ipini eutsazan, baina danak saldatsuak. Eta seguru, Amiamuak zelan daukan piku luzea, ezin eban pikua behar dan moduan sartu... sartu bai, baina ezin eban ezer hartu. Eta Azeriak tripakada handia egin eban.

Orduan esan eban Amiamuak bere kolkorako:

—Neuk erakutsiko deusat hurrengoan horri!

Eta halan, hurrengo egun baten, berak konbidau eban, ahal baeban joateko bere etxera.

Baina Amiamuak euki eban holako kristalezko lapiko handi bat, musturra estua eukana, baina barruan ikusten jakon eukazala haragi edo okela zati handiak.

Eta esaten eutsan Azeriari:

—Ea, hasi jaten!

Eta Azeriak esaten eutsan:

—Buelta emoiozu.

Baina besteak esaten eutsan:

—Ez, ez, hemen pikua daukanak balio dau!

Berak sartzen eban pikua eta holako pikukada okela zati ederrak hartzen ebazan.

Hasten dira pelutxatan lelotuta, eta orduan hareekaitik esaten dabe, hartuemonak denda baten saltzen dirala.





1. Badakizu zein hegazti den Amiamua? Nola deitzen diozu zuk?
2. Zer esan nahi du *bere kolkorako* esamoldeak?
3. Zein da hitz bakoitzaren antonimoa?:
 

erakutsi	ozenki
berba egin	izkutatu
bere kolkorako	ixildu
4. Irakur ezazu hemen izkutatu dugun esaldia, erdian dagoen letratik hasita.

U	A	D	A	U
K	H	Z	E	K
A	E	E	Z	I
N	M	E	N	P
A	K	B	A	L

E \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



1. Zertara gonbidatu zuen Azeriak Amiamokoa?
  - a) Bere etxera joatera, jatordu eder bat egitera.
  - b) Elkarrekin bidea egitera.
  - c) Bere lepora igon eta baso barrura joatera.
2. Zer atera zuen Azeriak, Amiamokoa bere etxera eraman zuenean?
  - a) Zilarrezko baxera eta portzelanazko ontziak.
  - b) Batere sakontasunik ez zeukan kazola handia.
  - c) Etxea garbitzeko beharrezkoak.

3. Zer gertatu zitzaion Amiamokoari?:
  - a) Piku luzeegia zuela eta, ezer ez zuela jan.
  - b) Azeriak dena jan zuela, bera konturatu baino lehenago.
  - c) Lapikora jausi zela.
4. Azeria Amiamokoaren etxera gonbidaturik joan zenean:
  - a) Honek ez zion jatekorik eskaini.
  - b) Okela zati handia erakutsi bai, baina gero ogi koskor bat baino ez zion eman.
  - c) Kristalezko lapiko handia atera zion, mutur estukoa.
5. Zer egin zuen orduan Azeriak?:
  - a) Haserre bizian, lapikoa apurtu.
  - b) Buelta eman eta dena jan.
  - c) Amiamokoak hartutako tripakada ikusi behar.



1. Ipuineko deskribapenean oinarrituta, marraz itzazu Azeriak eta Amiamokoak bata besteari jarritako ontziak.
2. Imajina ezazu Amiamokoa zarela. Zer egingo zenukeen Azeriak egindakoaren ostean?
3. Asma ezazu kontakizunaren aldaera bat. Imajina itzazu beste bi hegazti edo abere, eta bata bestea izorratzeko moduko ontzia asmatu eta ondo deskribatu. Konta iezaiezu lagunei edo gurasoei.
4. Hona hemen beste atsotitz bat:  
 — *Ondarru eta Mutriku, idiak idia aurkitu.*  
 Bi gauza edo pertsona berdintsuak direnean erabiltzen da atsotitz hau. Ipuineko protagonistei, Azeria eta Amiamokoari primeran egokitzen zaie atsotitz hau. Zergatik?

## *9. Astoa eta Txarria*

Behin baten Astoa eta Txarria haserretu egin ziran, sarri ibiltzen ziran alkarregaz eta.

Eta Txarriak esan eutsan Astoari:

—Zure moduan ibiliko naz! Ugazabak makilakadak emonda, ipinten dan kargea etxera eroan ezinik. Holantxe zabilz beti, gau eta egun, gixajoori!

Astoa bien bitartean pentsetan egoan, eta halako baten esan eutsan ba ze:

—Eta zu, jan eta edan, ondo zagoz. Zeuk gura dozuna jaten dozu. Jaten emoten deutsue zenbat gura. Baina bezperan, aparirik emoten ez deitsuenean, hurrengo egunerako kontuak atera... ze hurrengo egunean aiztoa sartuko deutsue eta!

1. Batu abere bakoitza zure ustez berari dagokion ezaugarriarekin:  
azeria            langilea  
astoa            alaia  
txoria            azkarra  
lehoia            bihurria  
katua            jakintsua
2. Ikasleak binaka jarrita, batak besteari kontatu diezaiotela ipuina. Ondoren, bakoitzak ipuin berri bat asmatu eta kontatu beharko dio besteari, ipuin honen tankerako. Esaterako: Oilarra eta Ahatea daude eztabaidan. Ahateak dio bera Oilarra baino hobeto bizi dela, Oilarra egunero goizean goiz kukurruka ibili behar izaten duelako, nahibeste lo egin ezinda. Oilarrak erantzuten dio Ahatea itxura baten hobeto bizi arren, gero “paté”a egiteko hiltzen dutela.



1. Zergatik haserretu ziren Astoa eta Txerria?
  - a) Batak bestea makilakadaka ibiltzen zuelako.
  - b) Karga eroan ezinik zebilelako Txerria.
  - c) Sarritan ibiltzen zirelako elkarrekin.
2. Txerriaren esanetan, nor bizi zen txartoago, bera ala Astoa?
  - a) Astoa.
  - b) Txerria.
  - c) Biak antzera.
3. Zergatik?
  - a) Jabeak ez ziolako jaten ondo ematen.
  - b) Ugazabak makilakadaka ibiltzen zuelako.
  - c) Baserrian bizi zelako eta ez kalean.

4. Astoaren ustez, nor bizi zen txartoago, bera ala Txerria?
  - a) Ez bata ez bestea.
  - b) Astoa.
  - c) Txerria.
5. Zergatik?
  - a) Ondo jaten ematen dioten arren, hiltzera eramaten dutelako.
  - b) Beti kargatuta ibiltzen dutelako.
  - c) Goiko arrazoi biengatik.



1. Badaude elkarrekin ondo konpontzen diren abereak eta baita elkarrekin ondo konpontzen ez direnak ere, elkarren arerioak direnak. Zeintzuk konpontzen dira ondo eta zeintzuk txarto, bikote hauetatik?
 

Astoa eta behia. \_\_\_\_\_

Txerria eta astoa. \_\_\_\_\_

Katua eta sagua. \_\_\_\_\_

Txakurra eta katua. \_\_\_\_\_

Txoria eta katua. \_\_\_\_\_
2. Animalia basatien artean, esaterako, zeintzuk dira elkarren etsaiak? Zein da elkarrekin txarto konpontzeko arrazoa, zure ustez? Badu zerikusirik abere bakoitzak bere elikadurarako behar duenarekin?
3. Zein da Txerria eta Astoa haserretzeko arrazoa, ipuinaren arabera? Egia al da errazago haserretzen garela lagun handiak ditugunekin, konfiantza handia daukagunekin eta sarri egoten garenekin? Zergatik ote da?
5. Nor bizi da hobeto, zure ustez, makilakadaka dabilen Astoa, beti lan eta lan, ala Txerria, lanik egin ez eta ondo janda bizi dena, baina gero hiltzera eramaten dutena?
6. Eztabaida ezazue taldeetan: badauka gizakiak animaliak hiltzeko eskubiderik? Zein kasutan? Jateko denean? Zer deritzozu ehizan animaliak hiltzeari? Animalia batzuk euren gorputz atalen bat garesti saltzen delako hiltzen dira. Esaterako: elefanteak marfila lortzeko edo azeriak berokiak egiteko. Zer deritzozu honi?



## *10. Zazpi Ahunzkuma*

Izan zan behin Ahuntz bat. Zazpi Ahunzkuma euki zituan ahuntzaldi baten.

Halako baten jateko zeozer erosten joan behar eban berak eta, esan eutsen Ahunzkumeei:

—Ez deutzazue aterik inori edegiko gero! Inori be ez, Azeria edo Otsoa dabil hortik eta!

—Ez ama, ez deutzagu edegiko inori aterik guk —erantzun eben Ahunzkumak.

Handik lasterrera etorri zan Otsoa, jo eban atea, eta:

—Nor da? —Ahunzkumeak.

Eta Otsoak:

—Zueneko ama!

—Gure ama ez zara zu; gure amak ez dauka holako bozik. Zu ez zara gure ama!

Amaren boza suabea zan eta harena gogorra, ostera.

Joan zan, eta handik geroagora, ez dakit zenbat arrautza jan zituan oilatoki baten boza finduteko, eta ostera be etorri zan, jo eban atea, eta:

—Nor da?

Eta:

—Zueneko ama!

Eta:

—Erakutsi oina!

Eta oin baltza eukan. Orduan ostera be Ahunzkumak:

—Zu ez zara gure ama. Gure amak oin zuria dauka, baltza barik eta.

Joan zan atzera handik, eta errotara abiatu zan, sartu zan urunez beterik egoan kaixa baten, eta bihurtu zan zuri-zuri eginda.

Eta barriro:

—*Tan-tan!*

Eta:

—Nor zara?

—Zueneko ama.

Oina erakusteko, eta ikusi oina zuria eukala, eta atea edegi eutsen.

Txikiena sartu zan erlojuan, eta beste guztiak irunsi eta jan zituan Otsoak.

Gero, ama etorri, ta ene! Erradioaren ondoan egon zan lo Otsoa, eta zer egin eutsan amak? Artaziekin sabela ebagi, eta danak bizirik atera kanpora. Orduan ha sabela harriz bete eutsan. Harriz bete eutsanean, ondo ondo josi eban atzera.

Orduan Otsoari egarria etorri jakon, eta edaten joan zan handik hurreko pozu batera. Edaten hasi eta pisuaren pisuaz, *plaut!* pozu barrura jausi zan eta bertan ito.



1. Azter ditzagun ipuinean agertzen diren zenbait hitz. Ezkerreko eta eskumako hitz edo esamoldea lotu, bakoitza bere sinonimoarekin. Ikasleek asma dezatela ariketa bat, hitz hauekin ahozko ariketaren bat egiteko.

Edegi	Holako ahotsik
Holako bozik	Harena gogorra, ordea
Handik lasterrera	Orduan berriz ere
Orduan ostera be	Handik gutxira
Harena gogorra, ostera	Ireki
Zuri-zuri bihurtu zan	Zuri-zuri bueltatu zen

2. Testuan bi onomatopeia ageri dira. Zeintzuk dira?
3. Amak dio: *Ez deutzazue aterik inori edegiko gero! Gero hitzak, ez du esanahi zehatzik esaldi honetan. Harridurazko edo inperatibozko esaldien azkenean agertzen da eta harridura edo aginduari indar berezi bat ematen dio. Erabiltzen duzu zeuk forma hau? Ez baduzu erabiltzen, nahi duzu erabiltzen ikasi? Gelako bat tentetzen da eta beste bati bere ize-naz deiturik agindu bat ematen dio: *Pello, ez hartu nire baloia gero!* Hurrengo, Pello zutituko da eta beste gelako bati zuzenduko zaio: *Mari, ez eman niri musurik gero!* Marik hurrengo: *Peru, bihar etxekolanak eginda ekarri gero!* Eta honela, gelako ikasle guztiek behin forma hau erabili arte.*



1. Nora joan zen Ahuntzemea, Ahunzkumak etxean utzita?
  - a) Jateko zerbait eroatera.
  - b) Otxoa non zegoen begiratzera.
  - c) Ahuntzaita bilatzera.
2. Zergatik esan zien amak ez edegitzeko inori atea?
  - a) Hotz handia egiten zuelako kanpoan.
  - b) Otxo eta Azeriaren beldur zelako.
  - c) Ez zuelako nahi bere kumeak inork ikusterik.

3. Nork jo zuen atea amak alde egin eta gutxira?
  - a) Berak amak berriro, zerbait ahaztuta utzi zuen eta.
  - b) Otsoak, amaren ahotsa jartzen saiatuz.
  - c) Otsoa, ahots gogorra jarriaz.
4. Zertan nabaritu zuten Ahunzkumeeek Otsoa zela eta ez ama?
  - a) Oinean.
  - b) Ez ziren konturatu.
  - c) Ahotsean.
5. Otsoak ahotsa findu ostean, zertan nabaritu zuten kumeeek otsoa zela eta ez ama?
  - a) Berriro ahotsean.
  - b) Oin beltzean.
  - c) Oin zurian.
6. Ama etxeratu zenean, nola aurkitu zuen otsoa?
  - a) Lotan, kumeak bere alboan zituela.
  - b) Kumeak harrapatu nahian.
  - c) Lotan, kume guztiak bat ezik barruan zituela.
7. Nola hil zen otsoa?
  - a) Amak artaziez tripa moztuta.
  - b) Itota, putzuan edaten hasi eta hondoratu egin zen.
  - c) Guztien artean ito zuten.

1. Orain arteko ipuinetatik azken hau izango da ezagunena, seguraski. Ezagutzen zenuen? Non irakurrita edo nork kontatuta?
2. Ipuin guztietan izaten dira fantasia elementuak, errealitatean posible izaten ez direnak. Azter ditzagun ipuin honetako pertsonaia eta gertakari fantastikoak. Ipuinean gertatzen denetik, zer ez litzateke posible errealitatean? Esaterako, ahuntzek eta otsoek ez dute hitz egiten. Zein da zure ustez ipuineko elementurik fantastikoena?
3. Asmatu eta, ahoz kontatu, bururazten zaizun ipuinik fantastikoena. Gehienez hamar esaldi erabil ditzakezu. Hasiera, honako hau izan daiteke, nahi baduzu: “Etxetik irten eta autobus geltokira abiatu nintzen, ikastolara joateko”.

## *11. Ondo eginaren pagua*

Egun baten Gizon bat basora joan zan, eta basoan zehar doala Lukiaren zulora jausi zan. Eta Lukiari lastimea emon eutsan gizonak, han txarto be txarto egoan eta, eta atera egin eban zulotik.

Eta gizonak, bere burua libre ikusi ebanean, esan eutsan:

—Lagundu eidazu etxera, lagundu eidazu etxera!

Eta Lukiak erantzun eutsan:

—Ez, ze bildur naz, zuk ez deustazu ondo egingo eta.

—Bai, bai, zugaitik bizi naz ni eta. Goazen geurera, ze zu gose zara eta neuk emongo deusut jaten.

Joan ziran etxera ba. Baina gizon honek txakurrak euki zituan, txakur handi bi. Eta etxe ondorra heldu ziranean, esan eutsen txakurrei:

—Otsa, otsa honeri!

Eta jakina! Luki koitaduak arrapaladan iges egin behar izan eban, ze txakurrek haginka egiten eutsien berari eta.

Eta esan eban:

—Ondo eginaren pagua, ate ondoan palua emon deustazu.



1. Gizonak txakurrari *Otsa, otsa honeri* diotso, azeriari eraso egiteko adierazteko. Gizonaren eta animalien artean bada-go hizkuntza berezi bat. Ezagutzen dituzu forma hauek?

Astoari	<i>Sooo!</i>	esaten zaio geratu dadin.
Astoari	<i>Arre!</i>	esaten zaio martxan jar dadin.
Txakurrari	<i>Toma!</i>	esaten zaio zaunka dagoenean isiltzeko.
Txakurrari	<i>Otsa!</i>	esaten zaio baten bati eraso egiteko.
Katuari	<i>Xapi!</i>	esaten zaio joan dadin.
Txerriari	<i>Txiki-txiki!</i>	esaten zaio jatekoa ematerakoan.
Behiari	<i>Aida!</i>	esaten zaio aurrera egin dezan.
Oiloari	<i>Purra!</i>	esaten zaio jatera hurbildu dadin.



1. Non jausi zen Gizona?  
 a) Lukiarentzat prestatutako tranpa baten.  
 b) Bidean zegoen zulo baten.  
 c) Lukiak prestatutako tranpa baten.
2. Zertara gonbidatu zuen Gizonak Lukia?  
 a) Etxera, jatera.  
 b) Etxera, txakurrak ikustera.  
 c) Beste luki bat ikustera.
3. Egia esan zion Gizonak Azeriari?  
 a) Bai.  
 b) Ezin da jakin, ipuinean ezin da igarri.  
 c) Ez.

4. Zertarako eraman zuen benetan Gizonak Lukia etxera?
  - a) Afari eder bat egiteko.
  - b) Txakurrek Lukiari eraso egiteko.
  - c) Txakurak ezagutzeko.
5. Ipuinaren bukaeran lukiak dio: *Ondo eginaren pagua, ate ondoan palua emon deustazu. Zer esan gura du honek?*
  - a) Ate ondoan makila, *palua*, zegoela.
  - b) Ondo egindakoak eskertu beharrean, kaltea egin diola gizonak.
  - c) Biak.



1. Jolas dezagun ipuinak asmatzen. Talde txikietan nahiz talde handian, guztion artean ipuin bat asmatuko dugu: batek hasiera eman eta beste ikasle batek jarrai dezala. Honen ondoren, hirugarren batek jarraituko dio ipuinari eta, honela, harik eta ikasle guztiek euren zaria asmatu arte. Bukatzerakoan, ikaslea batek konta dezala oso-osorik ipuina.

## ARIKETA OROKORRAK

1. Ikasle batek / batzuk ipuin zati bat konta dezatela eta besteak / besteek amaiera desberdin posibleak asma ditzatela.
2. Ipuin batzuk (hiru edo lau edo denak) ikasi ostean, ume bat ipuin bat kontatzen hasiko da, zein ipuin kontatzen duen esan gabe. Hurrengo batek ipuina kontatzen jarraitu beharko da, gero beste batek, eta horrela ipuina amaitu arte.
3. Ikasleak konta diezaiola ipuina beste lagun bati, gurasoei, etxekoei, gelakoei....
4. Zeintzuk dira ipuin hauetan agertzen diren abereak? Osa ezazu zerrenda bat guztiekin.
5. Zein da abere-ipuin hauetan gehien agertzen den animalia?
6. Izendatu ezagutzen dituzun animalia guztiak. Minutu bat duzu. Zenbat esan dituzu?
7. Zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizun hiru animaliak? Eta gutxien gustatzen zaizkizunak?
8. Ipuin hauetan, abereek hitz egiten dute. Komunikatzen ote dira animaliak euren artean? Zer nolako komunikazioa dute-la uste duzu? Zer ulertzeko dira kapaz? Esaterako, erleek komunikazio sistema oso konplexua dute. Erle batek, beste-en aurrean bere dantzan egiten dituen mugimentuen bitartez komunikatzen die bere kideei non dagoen aurkitu duen loreztia. Bere dantzan ematen die, besteak beste, honako informazio hau: zenbateko distantzia dagoen, zein norabidetan, eta dauden tokitik zenbat gradutako angeluan. Nola da posible?
9. Abere batzuren izaera aztertuko dugu, ipuin hauetan agertzen denaren arabera. Zer ekintza egiten du azeriak, esaterako, lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta zortzigarren ipuinetan? Agertzen da inoiz animalia "on" gisa? Horren gaiztoak ote dira azeriak?
10. Ipuin hauetan agertzen diren pertsonaietatik, badago zeu izatea gustatuko litzazukeenen bat? Zein?
11. Zein ipuin gustatu zaizu gehien? Eta gutxien? Zergatik?
12. Aukeratu liburuan agertzen diren hitz berri edo esaera jator gutxi batzuk, gaurtik aurrera zeuk ere erabiltzeko.
13. Zer eritzi duzu liburuaz? Zer gustatu zaizu? Zer ez?
14. Liburu honi izenburua jarri behar izan bazenio, zein jarriko zeniokeen?
15. Aukera ezazu ipuin hauetatik bat zeure lagun edo gelako kideekin antzetzeko.
16. Ipuin bakoitzean, narrazioaren egitura aztertu: Sarrera - korapiloa - amaiera.  
Aztertu baita ere, protagonisten ezaugarriak, deskribapenak, mezua eta argudioa.

17. Nahaste berraste honetan, aurkitu itzazu animalia hauen izenak: elefantea, tigre, lehoia, tximinoa, azeria, astoa, katua, ardia, enara, mirua, zozoa.

L	Z	O	M	I	R	U	A	S	T
E	L	E	F	A	N	T	E	A	X
H	D	S	E	R	E	I	E	Z	I
O	H	K	A	D	H	G	P	O	M
I	O	A	T	I	U	R	M	Z	I
A	S	T	O	A	I	E	R	O	N
A	A	U	S	E	N	A	R	A	O
I	X	A	Z	E	R	I	A	K	A

Azpimarra itzazu letra salda honetan, liburuan agertzen diren abereak. Hegaztiak horiz eta basabereak urdinez pinta itzazu.

18. Aurkitu aldrebeskeri izkutua. Horretarako, aipatzen dugun ipuineko agintzen dizugun berba jarri behar duzu bere tokian:

Iretargian \_\_\_\_\_ ei \_\_\_\_\_.

(8. ipuineko 1. berba) (6.eko 98. berba) (6.eko 98. berba) (3.eko 104. berba) (2.eko 50. berba)

Asto- \_\_\_\_\_ ei \_\_\_\_\_

(1.ko 17. berba) (1.ko 14. berba) (1.ko 15. berba) (8.eko 16. berba) (4.eko 13. berba)


\_\_\_\_\_.

(4.eko 99. berba) (4.eko 100. berba) (1.eko 17. berba)



19. Osa ezazu gurutzegrama hau:

1. Animaliak pertsona gisa agertzen diren ipuinei ematen zaien izena.
2. Alegietan azeria izendatzeko era.
3. Alegietan zozoa izendatzeko era.
4. Azeriak esandako egia kopurua.
5. Miruak haitz artera botatako aberea.
6. Abereen batzarrean astindu zuten aberea.



# ERANTZUNAK

## 1. MIRUA ETA AZERIA

### A. EUSKARA ABERASTEN

1. Mirua, “milano” delakoa da.
2. *Gura* izan edo *nahi* izan; *osteko* egunetan edo *hurrengo* egunetan; *topatu* eban edo *aurkitu* eban; ebateko *planta* egin edo ebateko *itxura* egin; bota *arin* edo bota *bizkor*; *osterantzean* edo *bestela*; *ostera* ere miruak edo *berriz* / *berriro* ere miruak; erantzun eban *barriro* edo erantzun zuen *berriz* / *ostera* ere; goseak hil *orduko* edo goseak hil *baino lehen*; *lantzean bat* jan edo *bakoitzean bat* jan; *halanda ze...* edo *beraz...*; *zantarra* edo *lizuna*, *gordina*.
3. Oso txikia edo txiki-txikia; oso polita edo polit-polita; oso zikina edo zikin-zikina; oso iluna edo ilun-iluna.
4. Txakurkumea; astakumea; txerrikumea; txorikumea; usakumea; lehoikumea; elefantekumea.
5. Antzerako esangura duen hitza *garrasika* da, guztiz berdina ez den arren. *Alaraua* minez egiten den oihua da.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1b; 2b; 3c; 4c; 5c; 6b; 7a.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

6. 1a; 2b.

## 2. AZERIA ETA OTSOA

### A. EUSKARA ABERASTEN

2. Bizkaiko herri baten, Aulestian.
3. *Iretargia* ikusi ei eban edo *ilargia* ikusi ei eban; *opila* edo *ogi biribil txikia*; *itaundu* eban Otsoak edo *galdetu* eban Otsoak; *garuna* edo *burmuina*; *altzatu* edo *jaso*; *atartea* edo *ataria*; *ezkaratza* edo *sukaldea*; *gatzatua* edo *mamia*.
5. Hamazazpi bat aldiz agertzen da “ei” hitza. *Ikusi ei eban* esatean, kontalariak zalantza izpi bat uzten du airean. Nolabait esateko, norberak ez duela ikusi adierazten du, baten batek kontaktutakoa edo dela. *Omen* hitza zentzu berean erabiltzen da.
7. *Jezarri egin nintzen, nekatuta nengoen eta* / *Nekatuta nengoenez, jezarri egin nintzen* / *Jezarri egin nintzen, nekatuta bait nengoen*; *Emaidazu liburua, neurea baita* / *Neurea denez, emaidazu liburua* / *Emaidazu liburua, neurea da eta*; *Pisu handiegia duenez, ezin dut jaso* / *Ezin dut jaso, pisu handiegia du eta* / *Ezin dut jaso, pisu handiegia baitu*.
8. *Bint eta baunt, baunt eta bint*.

B. ONDO ULERTU DUT?

1a; 2c; 3b; 4b; 5b; 6c; 7c; 8a; 9c; 10c; 11a.

C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. Antzerako izaera ageri du ipuin bi hauotan.
2. Azeriari, seguraski.
3. Ura edaten jartzen duenean, opila iruntsi duela sinestu eragiten dionean, kortxoa atera dionean, garunak aterata dagoela sinestu eragin dionean eta, azkenez, gainean eraman eragin dionean. Bost aldiz, gutxienez.
6. Argia baina maltzurra dela.
8. b) aukera.
10. 1a; 2b.

3. AZERIAREN HIRU EGIAK

A. EUSKARA ABERASTEN

1. *Ama langorik ez edo ama bezalakorik ez; eguzkia baizen argi ez edo eguzkia bezain argi ez.*
5. *Korazatua, gerrauntzia, merkataluntzia, arrantzuntzia, petroliuntzia, ferrya, gabarra, txalupa, urpekuntzia...*

B. ONDO ULERTU DUT?

1a; 2c; 3b; 4c; 5b; 6a.

C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. *Murueta eta Kanala dira herriak. Bizkaian daude, Gernika ondoan, Gernika edo Mundakako itsasadarrean, itsasadarren albo banatan, Urdaibai izeneko natura-inguru babestuan.*

4. TXOLIN SIERRA

A. EUSKARA ABERASTEN

1. *Matraila edo masaila; erpeka edo abereak erpeez egindako atzaparkada; iruntsi edo irentsi; txolin hitzak bi esangura ditu: berbaldun eta txoriburu; bota eragin edo bota erazi.*
2. *Xoxote zozoaren pertsonifikazioa da, azeriarena Axelko edo Lukito den bezala.*
6. *Xoxote, zer jazotzen jatzu / zaizu!; Hiru alaba euki dodaz / ditut; Eta Azeriak jan egin deustaz / dizkit; Hilda dago!*
7. *Nire anaiak bata baino bestea okerragoak dira; nire gurasoak bata baino bestea gogorragoak dira; neska horiek bata baino bestea azkarragoak dira.*

B. ONDO ULERTU DUT?

1b; 2a; 3c; 4a; 5c.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. Txakurra, Zozoa eta Azeria.
3. Xoxotek; Xoxotek; Azeriak; Azeriak.
4. Miruak beste kumeak salbatzarren eman dio kumea, baina bazekien bakar hori behintzat, jan egingo ziola; Zozoak, ordea, engainatuta, Azeriak ikusi baino ez dituela egin nahi sinestuta eman dizkio.
6. Lehenengo ipuinarekin du antzekotasun handiagoa, okerra egin duenak, hots azeriak, bi ipuinetan bere jokabide gaiztoaren “ordaina” jazotzen du. Bigarren ipuinean ez, ordea.

## 5. ABEREEN BATZARRA

### A. EUSKARA ABERASTEN

2. *Xirrika-mirrika* edo *astiro eta isilik*; *batzartu* edo *bildu*; *berba* egin edo *hitz* egin; *gomutatu* edo *gogoratu*, *oroitu*; *kopaua* egin edo *zertxobait jan*.
4. Asto gizajoa.
5. Zerbait gora eta behera indartsu eragitea da *astindu*. Kasu honetan, *jo* esan nahi du.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1c; 2b; 3a; 4c; 5a; 6c; 7b; 8a.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

2. c) aukera.
3. Ipuinaren mezuarekin bat dator atsotitza, hau da, batzutan batzuren erruak beste batzuk ordaintzen dituztela.
4. *Asto asko, lasto asko*: etxe baten neba-arreba asko badira, plater, koilare... asko egongo da. Bilbon jendetza handia bizi bada, jakina, bazterrak bete kotxe egongo da. Asko izateak beharrak ere handiak ekartzen ditu; *Asto osinean, irriz irri itotzean*: tontoa dena, larri dabilenean ere barrez.

## 6. ASTOA, TXAKURRA, KATUA ETA OILARRA

### A. EUSKARA ABERASTEN

1. *Ostikoaz jo* edo *ostikada eman*; *sua ixiotu* edo *sua piztu*; *zotxabarra* edo *zotzabarra*; *beharrak* edo *lanak*.
2. *Ez estutu* edo *ez larritu*; *non edo non* edo *nonbait*; *zeozer* edo *zerbait*; *baten bat* edo *norbait*; *ugazaba* edo *jabea*.
4. Ipuinean Katua miauka eta Oilarra kukurruka daudela aipatzen da.
5. Hurbil edo: hurran, gertu, paraje, ondoan; urrun edo: urruti, asago, urrin.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1c; 2c; 3a; 4b; 5a 6b; 7c; 8c.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. Katuaren lana saguak harrapatzea eta oilarrarena goizean goiz kukurruku egitea, etxeoak esnatzeko (azken hau ipuinean ez da esplizitoki azaltzen baina bai agertzen da ipuin honen bertsio batzutan)
2. Asto koitadua.
3. Oilarra tximinia gainean jarri zen. Katua, berriz, suaren ondoan; Astoa eskilara buruan plantatu zen eta Txakurra eskepean.
8. a) aukera.

## 7. GIZONA ETA OTSOA

### A. EUSKARA ABERASTEN

2. Harria; lukia; Otsoko; arrazoia; barriro; usteldu; ondino; dinotso.
3. Zubipean; mahaipean; ohepean; zuhaitzpean.
4. Tabernari; arraunlari; betaurrekodun; bizardun.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1b; 2a; 3b; 4a; 5b; 6a.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

1. a) aukera.
4. Gizonak; Azeriak; Gizonak; narratzaileak.
5. b) aukera.

## 8. AZERIA ETA AMIAMUA

### A. EUSKARA ABERASTEN

1. Zikoina edo Amiamokoa.
2. *Bere kolkorako* zerbait oso isilean edo inork ez entzuteko moduan esaten denean erabiltzen da.
3. Erakutsi eta izkutatu; berba egin eta ixildu; bere kolkorako eta ozenki.
4. *Ez, ez, hemen pikua daukanak balio dau!*

### B. ONDO ULERTU DUT?

1a; 2b; 3a; 4c; 5c.

## 9. ASTOA ETA TXARRIA

### A. EUSKARA ABERASTEN

1. Adibidez: azeria azkarra; astoa langilea; txoria alaia; lehoia jakintsua; katua bihurria.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1c; 2a; 3b; 4c; 5a.

### C. IPUINAREKIN JOLASTEN

2. Astoa eta behia ondo; txerria eta astoa ondo; katua eta sagua txarto; txoria eta katua txarto; txakurra eta katua txarto. Gaur egun aldatzen ari dira joera hauek eta katua eta txakurra, esaterako, sarritan ikusten ditugu elkarrekin jolasten, janaria nork eman dutenean, behintzat.
3. Elkarrekin sarri egotea jartzen du haserretzeko arrazoitzat.

## 10. ZAZPI AHUNZKUMAK

### A. EUSKARA ABERASTEN

1. *Edegi* edo *ireki*; holako *bozik* edo holako *ahotsik*; handik *lasterrera* edo handik *gutxira*; orduan *ostera be* edo orduan *berriz ere*; harena gogorra, *ostera* edo harena gogorra, *ordea*; zuri-zuri *bihurtu* zan edo zuri-zuri *bueltatu* zan.
2. *Tan-tan* eta *plaust*.

### B. ONDO ULERTU DUT?

1a; 2b; 3b; 4c; 5b; 6c; 7b.

## 11. ONDO EGINAREN PAGUA

### B. ONDO ULERTU DUT?

1a, 2a, 3c, 4b,5b.

## OROKORRAK

4. Mirua, Azeria, Otsoa, Txakurra, Zozoa, Lehoia, Tigrea, Astoa, Katua, Oilarra, Amiamokoa, Txerria eta Ahuntza.
5. Azeria, 7 ipuinetan agertzen da.
9. Azeria gaizto legez agertzen zaigu ia ipuin guztietan. Salbuespen gisa, zazpigarren ipuinean Gizonari laguntzen agertzen zaigu.
18. Iretargian Azeriak miau-miau egin ei eban. Asto-kumatxoak euki ei ebazan eta Xoxotek jan deutzaz kumatxoak.
19. 1: alegia; 2: Lukito; 3: Xoxote; 4: hiru; 5: Azeria; 6: Astoa.



Liburu hau  
1997.eko abenduaren 6an,  
San Nikolas egunean,  
argitaratu da.

